



Kyotoko Itunaren tranpa

Gehiago kutsatuz gehiago aberastu



- **Langileen eskubideak** Nola lortu genuen galtzen ari garena
- **Oier Lakuntza**, Kimikan doktorea «Ez zait gustatzen probatu aurretik besteek esatea zer egin dezakedan eta zer ez»
- **Liztor asiarra** Bazterrak nahastera nator
- **Gastu militarra Espainian** Ikerketa batek agerian utzi du murrizketak non egin behar diren
- **Izu Giroa** Hardcore eta punk fanzineak hamar urte bete ditu



Irakasleen prestakuntza

Irene Lopez Goñi • Mariam Bilbatua • Abel Ariznabarreta

Elkarrizketa:

Jean Mixel Etxegarai
Seaskako arduradun pedagogikoa



- Etorkizuneko irakasleen profila eta funtzioak
- Zein oinarri barneratu beharko lituzkete irakasleak?
- Nolako euskara maila dute irakasleak?
- Etengabeko ikaskuntza, formatzen jarraitzeko giltza
- Irakasle eskolatik ikastetxerako jauzia

Datorren astean



Azala: GARBINE
UBEDA GOIKOETXEA

Jabetza: Komunikazio Biziagoa, S.A.L. Lehendakaria: Ixabel Bereziartua. Zuzendaria: Xabier Letona. Zuzendariaren albokoa: Pello Zubiria. Astekariko erredakzio-burua: Estitxu Eizagirre. Asteko Gaia-Pertsonaia: Mikel Garcia. Iritziak: Mikel Asurmendi. Kultura: Garbine Ubeda Goikoetxea. Aisia: Unai Brea. Termometroa: Urko Apaolaza. Euskara: Onintza Irureta. Interneteko erredakzio-burua: Lander Arbelaitz. www.argia.com: Gorka Bereziartua, Jon Torner. Multimedia: Axier Lopez. Argazkilaria: Dani Blanco. Produkzioa: ANTZA, S.A.L.

Kudeaketa eta salmenta: Berdaitz Goia. Harpidetzak: Karlos Olasolo. Idazkaritza teknikoa: Aloña Sorluze. Publizitatea: Idoia Arregi, Maite Arrieta, Ixabel Bereziartua, Olatz Korta. Administrazioa: Marijo Aiertza, Mari Karmen Loiarde. Harrera: Jone Arzallus.

HELBIDEAK: Gipuzkoa: Industrialdea, 15. 20160 Lasarte-Oria. Tel: 943 371545. Faxak: 943 373403 (erredakzioa), 943 361048 (komertziala). Lapurdi, Nafarroa Beherea eta Zuberoa: Xalbardin baita. 64122 Urruña. Tel: 559 476000. Faxe: 559 476001. Nafarroa: Gazteluko Plaza 44, 3. eskutina. 31001 Iruñea. Tel: 948 222285. Bizkaia: Eleizalde 1, 2-D. 48600 Sopela. Tel: 94 6765580. POSTA ELEKTRONIKOA. Komertziala: komertzial@argia.com. Harpidetzak: harpidetza@argia.com. Erredakzioa: kazeta@argia.com. Interneten: www.argia.com. Lege gordailua: NA 80-1963. ISSN: 0213-909X. Batzorde parekidea: 72562 E. Inprimategia: Antza S.A.L. Informatika: iametza interaktiboa, S.L. Urtebeteko harpidetza. Hego Euskal Herria: 145 euro. Ipar Euskal Herria: 176 euro. Espainia: 145 euro. Beste atzerriak: 182 euro. Airez: 285 euro. Komunikazio Biziagoa S.A.L. Ametzagaina Taldeko partaidea da.



**EUSKO JAURLARITZA
GOBIERNO VASCO**

KULTURA SAILA
Hizkuntza Politikarako Sailburuordetza
diruz lagundua



Gipuzkoako Foru Aldundia



NON ZER

2012ko urriaren 21a, 2.341. zenbakia

DEABRUAREN ABOKATUA

ALBERTO SURIO: «EiTB zen legeintzaldiko patata beroa».
ARITZ GALARRAGA / 4

ASTEKO GAIA

LANGILEEN ESKUBIDEAK Nola lortu genuen galtzen ari garena.
NAGORE IRAZUSTABARRENA / 5

PERTSONAIA

OIER LAKUNTZA: «Geure buruari jartzen diogun oztoporik handiena ezer egiterik ez dagoela pentsatzea da». REYES ILINTXETA / 10

GAIK

VESPA VELUTINA ETA MUNDIALIZAZIOA Liztor asiarraren mezua.
PELLO ZUBIRIA KAMINO / 15

IRITZIAREN LEIHOA

ALDAKETA DA GURE AUKERA AMAIA LASA ALEGRIA / 18

PERU, ESPAINIA, KATALUNIA INMA ERREA / 20

GORA PRO NOBIS ASISKO URMENTA / 19

HEMEROTEKA Obamak eta Romneyk saihesten dituzten gaiak.
NOAM CHOMSKY / 21

TXANDAN Zebrabidean. EDU ZELAIETA / 20

BERTSO BERRIAK Bozkarioa. XABI PAYA / 21

ERDIKO KAIERA

SU TA GAR: «Arimadun kantzak sortzea izan da gure nahia beti».
IKER BARANDIARAN / 22

IZU GIROA FANZINEA Estoldetatik kontrakulturaren. M. GARZIA / 24

BERTOL ARRIETA: «Nire *slow life* egiteko modua da literatura».
GARBINE UBEDA GOIKOETXEA / 26

LIBURUAK X. ETXANIZ ERLE / 28 **DISKOAK** I. BARANDIARAN / 29

ALEA 11 ordu bertsotan. ESTITXU EIZAGIRRE KEREJETA / 30

DENBORA-PASAK ANA ZAMBRANO, KIKE AMONARRIZ / 31

ZIENTZIA ETA TEKNOLOGIA JOXERRA AIZPURUA / 32

LANDAREAK JAKOBA ERREKONDO / 33

DENBORAREN MAKINA NAGORE IRAZUSTABARRENA / 34

TERMOMETROA

EUSKO LEGEBILTZARRERAKO HAUTESKUNDEAK Independentzia
hotsak inoiz baino ozenago kanpainan. URKO APAOLAZA AVILA / 36

GASTU MILITARRA ESPAINIAN Urtean 8.000 milioi euro aurreztu
zitezkeen. DANIEL UDALAITZ / 39

ELEANIZTASUNAZ Lau hizkuntza ala hamalau, ez dio axola.
ONINTZA IRURETA AZKUNE / 42

EPAI HISTORIKOA ERRESUMA BATUAN Kenyarrek irabazi dute
Mau Mauren tortura kasua. LANDER ARBELAITZ / 44

EKONOMIAREN TALAIA JUAN MARI ARREGI / 45

EUSKARA ALBISTEAK ONINTZA IRURETA AZKUNE / 45

NET HURBIL Karbono trafikoa Espainian: kutsatzaileen lapurreta
berdea. PELLO ZUBIRIA KAMINO / 46

MALTZAGATIK XABIER LETONA / 50

ALBERTO SURIO

Bi Gaur egun geratzen zaizkio.

| ARITZ GALARRAGA |

Argazkia: Dani Blanco



«EiTB zen legegintzaldiko patata beroa»

Egun gutxi geratzen zaizkio EiTBko behin-behineko zuzendaritzari.

Behin-behineko zuzendaritza, lehen aldia entzuten dudana. Ekaitz perfektua gainditzea lortu dugu: iraultza teknologikoa, baliabide ekonomiko urriagoak, LTDaren eskaintza berria. Eta barkua norabide onean jarri dugu.

Barkuari "Patxi Lopezen irrati-telebista" esan diote; kapitainari "eguraldi maparen zuzendaria". Nola pasako da historiara zure agintaldia? Une zail bati egin diogu aurre pluraltasun izpirituarekin, zerbitzu publikoarekin, profesionaltasun eta gertutasunarekin. Joaten garenean gure lana objektiboago ikusiko da, erresumin gutxiagorekin.

Zu izan zara EiTB gobernatu duen lehen independentea. Harritzen nau horregatik zure gestioa partidistatzat hartu izanak.

Batzuek uste dute etxe honen jabe direla eskusiban eta ez dute jasan berau gobernatu ez izana. Lohi artean lan egin behar izan dut, baina kritikak kiroltasunez hartu behar dira.

EiTBko langileenak, esaterako? Haserre samar izan dituzu.

Ez beste medio publikoetan baino gehiago. Enpresa hauetan normala izan ohi dira interes konfliktuak. Gainera, profesionalen eskubideak bermatuko dituen erredakzio estatutu bat utziko dugu, langileen ia %79k babestu duena.

Audientzia portzentajeak ez dira izan hain onak. LTDaren panorama berriak zuzen eragin du audientzietan. Azken hilabeteetan buelta eman diogu halere egoerari.

Ados, LTDa. Autokritika esaten zaio horri.

Zerbitzu publiko plural baten, euskara eta balore demokratikoekiko konpromisoaren eta gertutasun programazio baten alde egin dugu lan. Batzuk arrazoi ideologikoengatik urrun sentitu badira ere, EiTBk bere publikoarekin duen lotura emozionala oso sendoa da oraino.

Baina EITBren zuzendaritzaren borondatea izan da publiko hori handitzea, Nafarroan adibidez?

Hasieratik lan egin dugu horren alde, beti ere Nafarroako Gobernuarekin batera eta ekonomikoki bideragarri izango den konpromisoarekin. Sentitzen dut akordioa ezin lortu izana.

Beste agintaldi bat EiTBk euskarari behar duen garrantzia eman gabe...

ETB1en aldeko gure apustua erreala da. Garai zailotan ere, fikziozko proiektuak martxan jarri ditugu. Erronka nagusia baliabide ekonomiko gehiago izatea da euskarazko edukiak sortzeko.

Hizkuntzari dagokionean, zein behar du EiTBren etorkizunak?

Akordio estrategiko handi baten arabera. Orain uste dut eskaintza elebiduna dela egoia, baina ez du zertan betierekoa izan. Hori bai, ez zait iruditzen errealista, eta bai akatsa, gaztelaniazko kateak kentzea.

Meritu bat ez dizut ukatuko: legegintzaldiko polemika gai nagusietakoa bihurtu izana EiTB.

Ez ote den gehiegixko. Hasieran handiagoa izan zen nahasmen-dua. Segur aski EiTB zen legegintzaldiko patata beroa. ■



Nola lortu genuen galtzen ari garena

Langileei langile direla ahaztu eta klase ertaina direla sinestarazi zieten. Baina krisiak bere onera (edo txarrera) ekarri ditu langileak. Sortu ez duten krisia ordaintzeko, azken mendeetan neke handiz lortutako eskubideak kentzen ari zaizkie. Eta hutsetik hasi behar bada, hutsera jo beharko da, langileek eskubiderik ez zuten garaira.

| NAGORE IRAZUSTABARRENA |

XVIII. MENDEAREN ERDIALDEAN Industria Iraultza abiatu zen Britainia Handian. Produkzio modu berri hark ekonomia eta gizartea goitik behera aldatu zituen. Gizarte talde berri bat sortu zen: laugarren estatua, proletarioak, langileak. 16 orduko lanaldi amaigabeak asteko zazpi egunetan gizon, emakume nahiz haurrentzat, soldata oso txikiak, higie-ne eta segurtasun baldintza eskasak... Etorki-zuneko langileek iraganeko esklaboak ziruditen. 1815eko bakealdiaren ondoren, industrializazioa (eta harekin batera, langileen baldintza latzak) Alemanian, Belgikan eta Frantzian hedatu zen lehenik, Europako gainerako herrialdeetan, AEBetan eta Japonian ondoren.

Langile mugimenduari lotutako lehen lis-karrak 1811n gertatu ziren, zenbait langile makinak hondatzen hasi zirenean, makinek lanpostuak murriztuko eta lan baldintzak okertuko zituztelakoan. Logikoa dirudi mekanizazioak langileei onurak ekarriko zizkiela pentsatzea: lan gutxiago eginda etekin handiagoak aterata, lanaldiak murriztu eta soldatak handitu zitezkeen. Baina orduko langileek ederki antzeman zioten enpresaburu- en eta agintarien logikari, gaur egun ezar- tzen ari den logika berari: oparoaldian eteki- nak niretzat, krisialdian galerak zuretzat. Klase kontzientzia zabaldu ahala, mutualita- teak sortzen hasi ziren eta, azkenik, 1824tik aurrera lanbide bereko langileen elkarteak sortu ziren, *trade unions* izenekoak, lehen sin- dikatuak.

CONCORDIA UNIVERSITY WISCONSIN



Langileak osagai mekanikoak muntatzen 1920ko hamarkadan. Ia industriarik gabeko Ipar Euskal Herrian oinarritzko zenbait lan eskubide bermatuta zeuden ordurako. Hego Euskal Herri industrializatuan, aldiz, helduleku legalik ez zegoen ia, gutxitan betetzen ziren arau bakan batzuk baino ez.

LANGILEEN ESKUBIDEAK



Klase kontzientzia zabaldu ahala, mutualitateak sortzen hasi ziren eta 1824tik aurrera lehen sindikatuak sortu ziren, trade unions izenekoak

Robert Koehlerren Greba (1886). Euskal Herriko lehen greba garrantzitsua koadro hau margotu eta lau urtera egin zuten Bizkaiko meatzariek.

Espainiako Estatuan industrializazioa berandu hasi zen, baina, hain zuzen, Hego Euskal Herria izan zen industria gune garrantzitsuenetakoa, Bizkaiko meategiak oinarri. Meatzaritzaren inguruan siderurgia moderna eratu zen. Hala, 1880ko hamarkadan estatuko hiru siderurgia enpresa nagusiak sortu ziren Bizkaian.

Industrializazioa Gipuzkoara zabaldu zen berehala, armagintza, chungintza eta papergintza oinarri. Araban eta Nafarroan prozesua motelagoa izan zen, eta are apalagoa Ipar Euskal Herrian.

1890: Bizkaiko meatzarien greba

Industrian aitzindari izaki, Euskal Herriko langile mugimendua ere Bizkaian hasi zen. XIX. mendearen bukaeran langileak industrialdeetan eta meategien inguruetan pilatzen hasi ziren, oinarritzeko inolako azpiegiturarik gabe. Meatzeetan langileak konpainiek haien-

tzako eraikitako barrakoietan bizi ziren eta produktuak konpañiako saltokietan erostera behartzen zituzten. Egoera larri hark 1890ean egin zuen eztanda, langileek, lan baldintza eskasak salatzeko, grebara deitu zute-nean. Greba Loma hitzarmenarekin amaitu zen: konpainietako saltokiak eta barrakoiak itxiko zituzten, lanaldiak murriztu eta soldat-ak hobetu. Baina hitzartutakoa ez zen errespetatu, langileen baldintza latzek hobekuntza gutxi izan zuten eta XIX. mendearen azken urteetan nahiz XX. mendearen hasieran grebak eta mobilizazioak ugaltu egin ziren. Gipuzkoako langileen baldintzak hain kaxkarrak ez ziren arren, langile mugimendua bertan ere hedatu zen (grebak izan ziren Arrasaten, 1893an, eta Eibarren, 1897an).

Espainiako Gobernuak langileen eskubideak bermatuko zituen legedi zabal eta zehatzik ezarri ezean, zenbait sektoretan hobekuntza txiki batzuk lortu ziren. Meatzarien adibidearekin jarraituz, 1914an langileek batez beste eguneko 3 edo 4 pezeta kobratzen zituzten. Lehen Mundu Gerrako krisialdian, soldat-ak zertxobait jaitsi ziren, baina 1916tik 1921era egunsariak %90 baino gehiago egin zuten gora. Industriak etekin izugarriak ematen zituen, eskulan premia hazi egin zen, eta patronalak igoera onartzea eta hurrengo urteetan igoerari eustea erabaki zuen. EHUKo Historia eta Erakunde Ekonomikoen saileko Pedro Maria Perez Castroviejoren arabera, faktore horiez gain, presio sindikal indartsuak ere eragina izan zuen soldaten eta beste lan baldintza batzuen hobekuntzan.

Urte horietan Bizkaiko industriaguneak UGT sindikatuaren eta PSOE alderdiaren sorleku nagusietakoak izan ziren, eta Facundo Perezagua izan zen meatzaritzako eta burdintzako langileen buruzagi nagusietakoa. Sektore horretako langile gehienak industria- ren hazkundeak erakarritako espainiar etorki- nak ziren (Perezagua bera Toledon jaioa zen). Baina beste sektore eta eremu batzuetan langile euskaldunak ziren nagusi, eta haien baldintzak hobexekoak izanik ere, eskubideei

Ezkerrean, Orconerako trenaren Somorrostroko meategietan. Eskuinean, jendetza Gallartako plazan bilduta, Facundo Perezaguaren hitzaldia entzuten, 1910eko meatzarien greban.

JOHN BLYTH



Antzinaroko grebak eta krisiaren aurkako neurriak

GIZEH-KO PIRAMIDEAK esklaboek eraiki zituztela uste genuen 2010. urtera arte. Baina Egiptoko orduko kultura ministro Farauk Hosni-k langile askeen obra direla jakinarazi zuen orduan. Langile horien lan baldintzak nahiko onak ziren duela 4.500 urte. Lan gogorra zenez, langileak hiru hilabete behin txandakatzen ziren. Egutero, deltako abeltzainek 21 behi eta 23 ardi bidaltzen zizkieten langileei (10.000 inguru). Horren truke, ez zuten zergarik ordaindu behar, proiektu garrantzitsu batean laguntzen baitzuten.


Historiako lehen greba dokumentatua ere Egipton gertatu zen, K.a. 1158. urtean. Dayr al-Madina 500 biztanleko herririka zen, XIX. dinastian Erregeen Haraneko hilobiak eraikitzen zituzten langileak biltzeko sortua. Ordura arte, langileen baldintzak ez ziren batere txarrak: hilero lau saski gari, ogia, gailetak, 15 litro garagardo eta etxerako hainbat tresna jasotzen zituzten. Ramses III.aren erregealdiko urte hartan, langileek protesta egin zuten 25 egun lehenago jaso beharreko soldataren zantzurik ez zutelako. Garia bi egun geroago iritsi zen. Baina handik hiru hilabetera, mobilizazioak berriro hasi ziren: lana uztea erabaki zuten eta itxialdia hasi zuten Ramses II.aren tenpluan. Astebete iraun zuen, greba hasi eta zazpi egunera langileek berriro jakiak jaso baitzituzten. XX. dinastia osoan zehar grebak bata bestearen ondotik egin ziren, faraoien sistema krisi ekonomikoan murgilduta baitzegoen. Ramses III.a izan zen azken faraoi handia. Handik aurrera egiptoar zibilizazioaren gainbehera etorri zen.

Dioklezianoren garaian Erromatar Inperioak ere gainbehera ez zuen urrun. 301. urtean enperadoreak gutxienezko soldata eta gehienezko prezioak ezartzen zituen ediktua promulgatu zuen, monetaren egonkortasuna bultzatzeko eta krisialdi ekonomiko larria leuntzeko. Ediktua betetzea derrigorrezkoa zen, eta gehienezko prezioak gaitzitzen zituztenei, esaterako, gari modioa (8,75 Kg.) 100 denariotik gorako prezio-

an edo haragi libra 8 denario baino gehiagotan saltzen zutenei, heriotza zigorra ezartzen zitzaien.

Dioklezianok finkatutako soldaten arabera, nekazariak, mandazainak eta estolda garbitzaileak egutero 25 denario jasoko zituzten, arotzek, igeltseroek eta okinek 50, maila ertaineko legionarioek urteko 15.400 denario jasoko zituzten eta pretoriar guardiako kideek 19.000 (egutero 40 eta 50 denario baino gehixeago, hurrenez hurren).

Antzinaroan langileen baldintzak uste baino hobeak zirela erakusten du honek guztiak. Baina bidegabekeriak ere baziren: antzinako Erroman, egutero puntako kirolarietara gertatzen den moduan, gladiadore askeek irakasleen urte osoko soldata jaso ohi zuten garaipen entzutetsu bakar baten truke, eta Caio Puleio Diokles aurigak 35 milioi sestertzio irabazi zituen karrera osoan (sestertzio bat = lau denario). Gainera, datu hauek guztiak langile askeei dagozkie eta Antzinaroan ekoizpena esklaboek lanaren eskutan zegoen hein handi batean.



PERGAMONMUSEUM BERLIN

Gehienezko Prezioen Ediktua edo Dioklezianoren Ediktua, enperadoreak 301. urtean promulgatua.






Norahi zoazela. Nonahi zaudela. Zure jendearekin. Zure iritzia adierazi nahi duzunean, zeure erara. Euskara zure bizimoduaren osagaia da. Berezkoa duzu. Zu eta zure lagunen artean, zure giroan, **gozatu euskaraz.**



Bizkaiko Foru Aldundia
Diputación Foral de Bizkaia

Emakumeen lana, nahieran erabiltzeko tresna malgua

“23 URTE NITUELA ezkondu nintzen, eta orduantxe hasi nintzen meategian. Lehenago, 12 urtetik aurrera, ehulea izan nintzen. Ez dakit irakurtzen ez idazten. Ikatz-bagonetak garraiatzen ditut arrastaka, sei ordu goizean eta beste sei arratsaldean. Ordubete eskas dut eguerdian ogi puska txiki bat gurin apur batekin jateko. Ezer ere ez edateko. Bagonetatik tiraka ibili izan naiz haurdun egonda ere”. Betty Harris meatzariak 1842an Ingalaterrako parlamentuko ikerketa batzorde bati eginiko adierazpenak dira horiek.

Industria Iraultzak gizonak, emakumeak eta haurrak berdindu zituen, lan gogorrari dagokionez. Lan sarietan, ordea, berdintasuna oso urrun geratu zen, emakumeek eta hurrek gizonezkoek baino askoz soldata txikiagoa jasotzen baitzuten, erdia inguru.

Egia da, XIX. mendearen bigarren erdian, Mendebaldeko gobernu gehienek hartutako lehen lan neurriak haurren eta emakumeen lana arautzeko izan zirela, baina gizalegeak baino gehiago merkatuaren legeak bideratu zituzten neurriok; mekanizazio geroz eta handiagoak etekina biderkatu eta eskulanaren beharra murriztu zituen. Emakumeen lan baldintzak hobetu ordez, lan ordainduaren ateak itxi zitzaizkien. Eta ate horiek komeni bezala zabalduko zizkieten. Emakumeen eskubideen aldeko lehen mugimenduek nagusiki sufragio unibertsala aldarrikatu zuten, eta burgesia izan zuten oinarri.

Gerrak bultzatu izan ditu emakumeak fabriketara. Gizonezkoak frontearen egonda, B plana martxan jartzea eta “bigarren mailako herritarrak” ekoizpen industrialean sartzea beste erremediorik ez zegoen. Eta Bigarren Mundu Gerra inflexio puntua izan zen:



Emakume langileen sinbolo gisa erabiltzen den arren, Bigarren Mundu Gerran, komeni zitzaientean, emakumeak fabriketara erakartzeko AEBetako gerra batzordeak eginga da afixa hau.

gerra amaituta, emakume askok ordaindutako lanean jarraitzea erabaki zuten.

Baina etxetik kanpo lan egiten duten emakumeen portzentajeak etengabe gora egin duen arren, gauzak okertzen direnean fronteko lehen lerroan daudenak, kaltetuek, emakumeak dira. Egia da Espainiako Estatuaren krisialdia piztu zenean datu nahasgarri bat argitaratu zela: langabezia gehiago hazi zen gizonen artean emakumeen artean baino. Kontua da erakuntzaren burbuilak eztanda egin zuela eta sektore horretako landun gehienak gizonezkoak zirela. Krisia gainerako sektoreetara zabaldu ahala, datuak goitik behera aldatu ziren: 2010ean gizonen langabezia tasak %1,6 egin zuen gora, eta emakumeenak %6,6.

Madrilatik etorritako azken lan erreformak ere emakumeak jo ditubereziki. Lanaldi partzialean ari dire-

nen artean emakumeak askoz gehiago dira eta 12. artikuluan egindako moldaketaren ondorioz ordu estrak egin ahal izango dituzte hemendik aurrera. Horrek teoriarik langile guztiei eragin beharko liekeen baina praktikan emakumei eragiten dien kontziliaziorako zailtasun ugari ekarriko du. Bestalde, berdintasunerako neurri gehienak hitzarmen kolektiboetan jasotzen dira eta horiek ahultzearekin batera, emakumeek irabazitako eskubide ugari bertan behera gera litezke.

Emakumeek prestakuntzaren esparruan aurrera egin dute. Europar Batasuneko goi mailako tituludun gehienak, %59, emakumeak dira. Baina horrek ez du neurri bereko ordainik: emakumeek, batez beste, gizonezkoek baino 7.000 euro inguru gutxiago kobratzen dute Hego Euskal Herrian.

dagokienez, bazuten zer borrokatua. EAJri lotutako hainbat lagunek bultzatuta eta Euskalduna ontzioa abiapuntu, 1911n Solidaridad de Obreros Vascos (VOS) sindikatu abertzalea sortu zen, gerora ELA izango zena. Euskal sindikalismoa banatuta egon zen orduz geroztik: UGT eta CNT Espainiako sindikatuak langile etorkinak biltzen zituzten nagusiki, eta euskal jatorrikoak ELAra hurbildu zuen. 101 urte geroago, irailaren 26ko greban, Espainiako sindikatu nagusiek ez zuten bat egin sindikatu abertzaleen deialdiarekin.

1936an ELAk bere hirugarren kongresua burutu behar zuen Iruñean, baina Gerra Zibilak bertan behera utzi zuen biltzarra. Eta frankismoan bertan behera utzi zituen langile mugimendua eta horrek nahiz instituzioek langileen eskubideen eremuan emandako urratsak.

Estatuetako lan legeak

Espainiako Estatuak lehen lan araua 1873ko Benot legea izan zen, 10 urtez azpiko haurren jarduna arautzen zuena. Hurrengo urteetan, ez zen lan legeria finkorik sortu, eta tarteka



Ipar Euskal Herrian industrializazioa eta, beraz, langile mugimendua, apala izan arren, Parisko Gobernuaren politikak eta legeek eragin diete hiru lurraldeetako langileei. Hala, 1968ko maiatzak ere izan zuen ondorioak Iparaldean. Grenelleko akordioetan adostutako neurriak estatu osoan jarri ziren indarrean: soldaten %10eko igoera, gutxieneko soldataren %25eko igoera, lanaldia murriztea, aurreko urteko Gizarte Segurantzaren murrizketak bertan behera uztea, enpresen barruan jarduera sindikala onartzea.

lege eta ordenantza bakan eta partzialak onartu zituzten: 1900ean lan segurtasunari buruzko lehen legea ezarri zuten, 1904an igandetako atsedena onartu zen, 1909an greba eskubide gisa onartu ez, baina delitu izateari utzi zion, 1911ko dekretu batek derri-gorrezko gizarte aseguruia ezarri zuen lehenengoz, 1918an 48 orduko lan astea ezartzen aitzindari izan zen Espainiako Gobernuak... Lege horiek guztiak bat zetozen funtsezko ezaugarri batean: oso gutxitan betetzen ziren.

Primo de Riveraren diktadurako ekarpen nagusia 1926ko Aunós Kodea izan zen, lehenengoz lan kontratua arautzen zuena. Baina jauzia II. Errepublikan eman zen: 1931ko Konstituzioak, lehenengoz, lan eskubideak jaso zituen, eta, besteak beste, langabeziaren aurkako neurriak ezarri ziren.

Baina bost urteren buruan, Espainiako gerra Zibilak eta gerraren garaileak 40 urtez izoztuta utzi zuen langile mugimendua. Franskismoak Estatuko arau monopolioa eskuratu eta langile eskubideak nahi bezala moldatu zituen sindikatu bertikalaren mozorropean.

Horrenbestez, Hego Euskal Herrian industrializazioa abiatu eta mende ingurura

hasi zen estatua langileen eskubideak legez onartzen eta bermatzen —eta tarte txikia behar izan du horiek urratzen hasteko—. Bitartean, Industria Iraultza berandu eta gelditu gabe igaro zen Ipar Euskal Herritik, baina Parisko Gobernuak lehenago eman zituen lan eskubideak onartzeko urratsak. Lanari buruzko lehen legeak industrializazioa bera baino lehen ezarri ziren, Frantziako Iraultzarekin batera, 1848an 12 orduko gehieneko lanaldia ezarri zen, 1884an sindikatuak ofizialki onartu ziren, 1919an hitzarmen kolektiboak finkatu eta urte berean lanaldia 8 ordura murriztu zen, eta Espainian gerra hasi zenean, Frantziako Estatuan lan bajak ordaintzen hasi ziren.

Langile eskubideen aldeko gorako bidea —luzeagoa eta nekezagoa Hegoaldean, leunxeagoa Iparraldean— zitzu bizian ari da maldan behera, atzera, Europako nagusigo neoliberalaren eta Espainiako Gobernuaren lan erreformen eskutik. Eta François Hollandek Frantziako hauteskundeak irabazi zituenean joera horri aurre egingo ziolako esperantzak lausotzen ari dira, desengainu bihurtzen.

Atzera begira ikusten da langileen eskubideen aldeko mugimenduaren oinarrian klase kontzientzia dagoela. Eta langileari kendu eta kendu ari zaizkion honetan, egoerak klaseertaineko kontsumitzaile izatearen lilura itsutzailea ere kendu behar dio begi paretik. Langilea langile baita, landun izatea geroz eta zailagoa denean ere. ■



1900ean lan segurtasunari buruzko lehen legea ezarri zuten, 1904an igandetako atsedena onartu zen, 1909an grebak delitu izateari utzi zion... Baina legeak oso gutxitan betetzen ziren

«Geure buruari jartzen diogun oztoporik handiena ezer egiterik ez dagoela pentsatzea da»

Goi mailako zientzialaria, Kimika teorikoan doktoratu berria, bertsolaria... Ikusmena galduta eta entzumen urritua izan arren bizitzaren koskak gainditzen doa Oier.

| REYES ILINTXETA |

Argazkiak: Dani Blanco

Zer da kimika teoriko eta konputazionala?

Kimika ikertzeko bi molde daude: bata laborategian, esperimentuen bidez, eta bestea teorikoa, ordenagailuz egiten dena. Azken honetan, elektroiek segitzen dituzten mekanika kuantikoaren legeak edo printzipioetatik abiatuta, sistema kimikoak aztertzen dira modu teorikoan, hurbilpenen bidez.

Zeri buruz egin duzu tesia, zehazki?

Metanoaren aktibazioaren inguruko ikerlana egin dut. Gaur egun kimikaren erronka garrantzitsua da hau, metanoa, bereziki, energiaren produkzioan erabiltzen delako eta hau aktibatuz gero beste erabilpen batzuk lortuko genituzkeelako: hidrogeno molekularra edo konposatu organiko baliotsu eta erabilgarriak adibidez. Metanoa erretzen dugunean CO₂ askatzen da eta, metanoa aktibatuz gero, hidrogeno molekularra lortuko litzateke eta erretzean horrek ez du CO₂ sortzen, ura baizik. Beraz, ingurumenari askoz ere kalte txikiagoa egingo litzaioke. Hortik daukan interesa.

Ordenagailua erabiltzen duzu. Nola moldatzen zara pantaila ikusi gabe?

Ordenagailu normala erabiltzen dut; nik behar dudana, beste itsuek bezala, pantaila irakurle bat da. Programa berezia da eta ikusi beharrean entzun egiten dut. Idazteko arazorik ez dut. Azken finean teklatura eza gutzen dut, mekanografia menperatzen baitut.

Tesia amaituta, hemendik aurrera zer?

Ni irekia nago. Dibulgazioan aritzea gustatuko litzaidake, baina gaur egun, krisia dela eta, hori oso zaila dago. Irakaskuntza, unibertsitatean irakasle izatea ere ez dut baztertzen. Dena den, agian orain bideragarriena doktoretza ondoko ikastaro bat egitea izango da. Urte bat edo bi kanpoan ematea, agian Tarragonan. Han hiru hilabeteko egonaldia egin nuen 2010ean, hango lantaldea ezagutzen dut eta oso ongi moldatu nintzen.

Atzerrira joateko ideia bazterrean uzten duzu?

Entzumen dela-eta traba handiak ditut ingelesarekin. Jendearekin hitz egiteko moldatzen naiz, idazteko ere bai, baina jendeari ingelesez ari denean ulertzea kostatzen zait. Baina ez dut baztertzen. Kataluniara joatea ez bada posible, agian Europa iparraldeko leku horietako batera animatuko nintzateke, han gizarte

NORTASUN AGIRIA

Oier Lakuntza Irigoien, Iruñea (1985-12-29). Guraso sakandarren semea, Oierrek Paz de Ziganda ikastolan eta Iturrama institutuan ikasi ondoren, Nafarroako Unibertsitatean Kimika karrera egin du. Orain berriki EHU'n euskaraz eginiko doktore tesia defendatu eta gainditu egin du *cum laude* klasifikazioarekin. Honainoko bidea ez da zela eta goxoa izan, Oierrek Wolfram gaitza duelako: horren ondorioz ikusmena galduz joan da, eta duela zazpi urte erabat itsu gelditu zen. Entzumen ere kaltetua du eta audifonoen bidez moldatzen da bizimodu ahalik eta normalena egin ahal izateko.



kot PIRENE

MIDI
D OSSAU
2.084 m



maila oso garatua dago eta agian laguntzak jaso ahal izango nituzke ikasteko eta eguneroko bizimodurako. Urtebete edo bi kanpoan emateko prest nago, baina neure burua hemen, Euskal Herrian, ikusten dut.

Dibulgazio lanetan agian, Elhuyar fundazioarekin?

Kontaktu bat izan nuen duela urte eta erdi eta haiek ere interesa zuten, baina geroztik krisiak gogor kolpatu ditu eta ikusi egin behar. Gustatuko litzaidake, euskaldunontzat Elhu-

yar erreferentziala delako, baina momentuz dena kolokan dago.

Zertan datza zure muga fisikoa?

5 urterekin Wolfram sindromea diagnostikatu zidaten. Horrek dakar, besteak beste, ikusmen eta entzumen nerbioen galera. Ikusmena pixkanaka galtzen joan naiz itsu gelditu arte eta entzumena ere galtzen ari naiz. Horretaz gain, bi diabetes mota ditut: diabetes metitus, eta insipidoa. Azken horren eraginez gorputzak ezin ditu likidoak mantendu eta haren ondorioetako bat da maskuri neurogenoa izatea. Horrek esan nahi du maskuriak ez diola nerbio sistemari erantzuten eta pixa egiteko arazoak sortzen dizkit.

26 urterekin hori dena gogorra izanen da...

Nik, zorionez, nahiko ongi asimilatu dut dena, eta erantzuten joan naiz, baina egia da hauetako arazoren bat agertu aldiro, nola baiteko beherakada duzula. Hasieran diabetesa izan zen, gero entzumena eta ikusmena... Galera pixkanakakoa izan da eta horrek lagundu dit ohitzen eta baliabide berriak erabiltzen, hala ere batzuetan gogor samarra da. Entzumen aldetik, aparatuekin ongi moldatzen naiz beste pertsona batekin hitz egiteko. Arazo gehiago izaten dut jende

Bertsotan

Irailaren bukaeran Oier Lakuntzak bere tesiaren defentsa egin zuen, Pedro Miguel Etxenike fisikari ezaguna buru zuen epaimahaiaren aurrean. Etxenikek "zorionak doktore Lakuntza!" esanez agurtu zuen Oier Iruñerriko Euskalerria Irratian eginiko elkarrizketan. Fisikari izabarrak Oier Lakuntza goi mailako kimikaria dela nabarmendu zuen eta horren lekuko direla nazioarteko zientzia dibulgazio aldizkari nagusietan argitaratu dituen artikulu bikainak. Epaimahaiburuak azaldu zuenez, *cum laude* kalifikazioa eman zioten "oso lan ona delako, laburra eta ongi idatzia. Azalpena ere bikaina izan zen". Bukatutakoan Lakuntzak eskerrak bertsotan eman zizkien eta Etxenikek hari erreplika emateko Maialen Lujanbio bertsolaria gonbidatu zuen.

gehiago edo zarata dagoenean. Bazkari edo afari ondoko batean, adibidez, ez dut arazorik izaten aldamenekoari entzuteko baina bai urrun daudenei.

Ikusmena galtzen joatea oso gogorra da?

Gauza asko ikusi dut eta ikusi dudak guztia ez nuke beste ezerengatik aldatuko. Baditut erreferentzia jakin batzuk. Badakit gauzak nolakoak diren eta hori laguntza handia da.

Ikusmena berreskuratzeko itxaropenik?

Gaur egun ikusmena eta entzumena berreskuratzeko modurik ez dago. Ikertzen ari dira, baina ez dago ezer. Helburua da entzumena ahal den heinean mantentzea.

Superman modukoa zara zu?

Ez! Nik beti esan izan dut horrelakoetan bi aukera daudela: iraganera begira egotea eta nostalgia sentitzea edo beste jarrera bat, nik aukeratu dudana, onartu eta arazoei aurre eginez bizimodu ahalik eta onena eramaten saiatzea.

Hau tokatu zait eta aurre egiten ikasi behar dut. Onartzea da lehen urratsa. Hortik aurrera arazoak gainditu daitezke, eta horretarako ingurukoen laguntza ezinbestekoa da, zalan-tzarik gabe. Agian nahi dudak guztia ezingo dut egin, baina probatu ondoren ikusiko dut hori.

Batzuetan aurreiritziei ere aurre egin behar izan diezu. Nafarroako Opuseko Unibertsitatean, adibidez.

Betidanik Kimika oso gustukoa izan dut eta probatu egin nahi nuen. Zalantza handiak nituen eta gainera unibertsitate-ate irekiko jardunaldietara joan nintzenean, hango dekanordeak esan zidan ez zidala gomendatzen, inondik inora, Kimika egitea. Zaila izango zela onartuta ere, probatu nahi nuen. Nik neronek ikusi nahi nuen. Tematu nintzela ikusita hartu ninduten eta karrera egin nuen.

Epaitegietan ibiltzea ere egokitu zaizue ezintasun pentsioa eta beken arteko balizko bateraezintasunarengatik.

Ikasle garaian gurasoek jasotzen zuten diru-laguntza nire ezintasunagatik. Doktoretza egiten hasi nintzenean pentsio hori zuzenean ni hasi nintzen

Bertsolari

"Hitzekin jolastea gustukoa dut. Duela zenbait urte Nafarroako Txapelketan parte hartzeaz gain, tarteka ateratzen diren bertso saioetan ere kantatzen dut eta gozatzen saiatzen naiz. Azken urte hauetan Lekunberriko bertso eskolan eta Donostian, unibertsitatearen inguruan, osatu genuen beste talde batean aritu naiz".

jasotzen eta, bestalde, ikerketa beka bat eman zidaten. Handik bi urte eta erdira, gutxi gorabehera, esan zuten beka hartzen hasi nintzenetik jasotako ezintasun pentsioaren dirua itzuli behar nuela, denera 11.000 euro. Guri ez zitzaigun bidezkoa iruditzen eta auzitara jotzea erabaki genuen. Gero Gizarte Segurantzak onartu zuen lehen bi urtekoa niri zegokidala, bekaren lehen urteak bekak direlako, ez lan kontratu bat, eta beraz bateragarriak dira. Hirugarren eta lau- garren urtean, aldiz, beka kontratu moduan egiten dute eta horren ondorioz epe horretako pentsioa, 1.600 euro inguru, itzuli behar nituela zioten. Guk jarraitu genuen esaten bateragarriak izan behar zutela eta otsailean egin zen epaiketaren emaitza gure aldekoa izan zen. Epaia errekurritu zuten eta juxtu gaurko berria da [urriak 2] helegite hori ez dutela onartu eta arrazoia guri ematen digutela.

Legeek ezinduak ezinduago egiten dituzte?

Bai. Eta badirudi arazoa harago doala. Gauzak dauden bezala, badirudi ezinduok ezin garela langile izan. Iduri luke ezintasun pentsioa kapritxotan gastatzen dugula, eta hori ez da horrela. Daukagun gaixotasunak dakartzan beste gastuei aurre egiteko da: medika-

Prezio bereziak langabeentzat

Matrikula zabalik!!! 2012-2013

Gabriel Aresti

euskaltegia eta akademia



Txikiak Aresti
Niñ@s

Gazteen Aresti
Jóvenes

Helduen Aresti
Adultos

Urritik aurrera

San Bizente 2 - 4.a - Bilbo - Tel: 94 423 75 91 - bulegoa@gabrielaresti.com

www.gabrielaresti.com



OFF THE RECORD

Ordenagailua

Oier Lakuntzari ordenagailuak hitz egiten dio. Guk pantailan ikusten duguna hitz bihurtzen dio. Hau eromena! Zitzu bizian robot batena dirudien ahots mekanikoak hamaika letra eta ikur deskribatzen dizkio erretolika zibernetiko amaigabeen. Goi mailako zientzia kontuetan, halere, ez omen da oso iaioa makina, eta kimika teorikoaren formulak deskribatzerakoan lan bikoitza ematen dio, ikerlanak egiterakoan. Hala ere, ezinbesteko laguna du eta elkarrekin gauza asko egiten ari dira.

mentuak ordaindu behar ditut, audifonoak tarteka erosi... Eta soldata ere behar da bizitzeko.

Gizarte hau, oro har, ez dago prentsaturik ezin duentzat...

Ez. Ordenagailua erabiltzen dut eta telefono mugikorra ere bai, baina orain sortzen ari diren tabletak eta tresna horiek guztiak, adibidez, ez daude guretzat pentsatuak.

Nire helburuetako bat, eta puntu ahulenetako bat, nire kabuz moldatzen ikasi behar hori izan da beti. Azkeneko lau urteetan, asteen zehar Donostian bizi izan naiz unibertsitate ondoko egoitza batean eta ongi moldatu naiz. Azkeneko urte honetan, aldiz, tesia idatzi bitartean, etxetik aritu naiz lanean eta asteen bitan Donostiara joaten nintzen.

Alde horretatik, Tarragonan egin nuen hiru hilabeteko egonaldia izugarritzko bul-tzada izan zen niretzako: apartamentu batean bizi izan nintzen ni bakarrik, etxeko gauza guztiak nire kabuz egiten nituen eta hori oso garrantzitsua izan zen niretzat: pixka bat landuz gero, hori dena egiteko gai nintzela egiaztatze oso baliagarria izan zitzaidan.

Ni neu

"Jendeak esaten didanean oker nabilela, nik esaten diet gustatzen zaidala nik neuk hormaren kontra jotzea eta ni neu ohartzea ezin dudala egin. Ez zait gustatzen probatu aurretik besteek esatea zer egin dezakedan eta zer ez".

Bertsolaritzaz gain, zer beste zaletasunak dituzu?

Lagunekin egotea gustatzen zait, bueltatxo bat ematea... Diabetes insipido hori dela-eta, mugatu samar nabil, baina asko gustatzen zait mendira joatea eta ibiltzea. Aukera daukadan gustura joaten naiz. Irratia entzutea izugarri gustatzen zait. Irakurtzea ere gustuko dut. Braillea oso gutxi erabili izan dut, irakurtzeko ordenagailua eta audio liburuak baliatzen naiz.

Gaur egun jende gazte asko kezkatuta dabil lan faltagatik, egoera ekonomikoarengatik. Zer esanen zenieke?

Eroso bizi izan den jendea halako zailtasun bat iristen zaionean, normala da pixka bat hondoratzea eta kikiltzea. Nik uste dut, ahal den heinean, aurre egin behar zaiola eta jendea animatuko nuke zailtasunen aurrean gaitortzen saiatzera. Geure buruari jartzen diogun oztoporik handiena ezer egiterik ez dagoela pentsatzea da. Gure aukeretan sinesten badugu eta ahalegintzen bagara, oztopo asko eta asko gaitortu ahal izango dugu. ■



HENDAIA
Urriaren 20an

Variétés Zineman
17:00etan

Ametz Arzallus
Eneritz Zabaleta

+ sailkatutakoak

finalaurrekoa 1
argia



VESPA VELUTINA ETA MUNDIALIZAZIOA

Liztor asiarraren mezua

[Erredakzioaren oharra] *Vespa Velutina Nigritorax* liztor asiarra da erle europarrari atera zaion azken etsaia. Euskal Herriko erlategietan agudo ari da hedatzen kalamitatea, erlezainen etsipengarri. Ondoko artikuluan kazetari eta erlezain amateurra saiatu da Velutina baten ikuspegitik azaltzen aldaketaren zentzua. Edo zentzuetako bat bederik.

| PELLO ZUBIRIA KAMINO |



ASSOCIATION VERACRUZ

ARGIAKO IRAKURLE HORI, *Vespa Velutina Nigritorax* bat naiz. Nire habiak ikusiak dituzkezu telebistan edo egunkari handietako erretratuetan. Baldin baduzu hogeia minutu, badaukat zuri zer kontatua.

Liztor asiarron berri 2006a arte Europako ia inortxok ez zekien. Urte hartan zabaldu zituzten lehen oharrak Frantziako erlezainen artean. Sainte Livrade-sur-Lot herrian (Baionatik 220 kilometrora) 2005ean azaldu nin-

***Vespa Velutina Nigritorax* liztor asiarra gertutik ikusita. Beldurrezko film batetik aterea dirudi.**

tzen lehenbizikoz, Txinatik bonsaiak inportatzen dituen landarezale baten erakustokian. Nagusiak esperoko zuen neguak hilko ninduela. 2006ko udaberrian gure lehen habiak ikusitakoan jakinarazi zien Claire Villemant, Jean Haxaire eta Jean-Claude Streito entomologoei. Hauek hasiera batean uste izan zuten hain lokalizatua egonik posible izango zela nire kasta suntsitzea. Laster ikusiko zuten oker zeudela. Betirako heldua naiz Europara.

VESPA VELUTINA



FREDERIC DUPUY

Ezkerretan, senar-emazteak baratzean aurkitutako liztor-habia erakusten. Eskuinean, erle sorta bat harrapatutako liztor asiarra itotzen, pilota moduan bilduta barruko aldea berotzearen indarrez.



2008ko ekainean *Le journal du Pays Basque* egunkariak jakinarazi zuen Euskal Herriko ateetan nintzela. 2010eko azaroan aurkitu naute Gipuzkoan. Espainolek orduan izan dute nire berri, Bidasoa eta Pirinioak gainditutakoan. Geroztik Euskal Herrian modako gaitzat sartua nago hedabide handien agendan. Habia espektakularra egiten dut, bertako espezie mitikoa den erlearen iraupena mehatxatzen, izurriak kontrolatzen dituztenei lana ematen, erlezaleak urte osoko ahanzturatik ateratzen. Erreportajetarako, primerakoa.

Erlezainak tristetu baino desesperatu egiten ditut nik, *Vespa Velutina* honek. Harro eta lotsagabe ikusten naute erlauntzen atarietan, ezta biltzetik datozen erle nekatuei erasotzen edo erlauntzetik ateratzen direnei. Handia naiz, burrunba gogorra egiten dut, batek erle bati heldu eta alde egin orduko beste bat edo bi edo hamar gatoz, etenik gabe. Nigatik eultzetako mugimendua gutxitzen da, erleak ez dira ausartzen irtetera, koloniak galtzen dira. Erlezainarentzako ez da bakarrik erleak galtzea edo ezta gutxitzea. Da nire inpunitatea ezin menderatua.

Erledunek tranpak jartzen dizkidate, garagardo eta zuku gozoz, bertan ito nadin. Aurkitzen dituzten habiak suntsitzen ahalegintzen dira, zuhaitzetatik jaitsi ondoren intsektizidaz, edo arbolean bertan eskopetaz tiroka. Kofoinen aurrean guardia egiten dute batzuek, zalabardoarekin ahal dituzten liztor aleak harrapatuz. Bakan batzuk hasi dira erlategiak sarek inguratzen. Edo pozoitutako karnata jartzen, habiara eraman dezaten. Bada bizirik harrapatutako liztorra hegal bat eta zango batzuk kendurik erleei atarian jartzen diena, ea hobeto ezagututa, usainduta, ukituta, guregandik defenditzen ikasten duten.

Hemen geratuko naiz

Ikasi beharko dute, *Velutinok* betirako etorri garela. Dagoeneko ba omen dira defendi-

tzeko taktika aurkitu duten erleak. Azken finean, Asian milaka urteko elkarbizitzan ni menderatzeko garatu dutena bera. Jatorrizkoa naizen India eta Txinan berez beste erle espezie bat bizi da, *Apis Cerana*, hemengo *Apis Mellifera* baino txikiagoa. Hango erle txikiek uzten didate hurbiltzen eta bat-batean zientu erdi bat edo gehiago datozkit gainera, pilota bat osatzen dute ni barruan harrapatutakoa itotzeko berotan, 45°C-tara iritsitakoan.

Nire hemengo pasadizoak gerta litezke XXI. mende hasierako mundializazioaren metafora. Txinatik heldu naiz, mendebaldeko industriako obreroen eta milaka enpresa txikiren malurra ekarri duen inperio urrunetik. Baina mundializazioa atzo hasia ez den bezala, Europako erleak ere aspalditik ari da urruneko izurri ezezagunen erasoak jasaten.

Erleen maitaleak larri dabilta. Frantzian oso ezaguna egin dute “*L’Abeille, sentinelle de l’environnement*” (Erlea, ingurumenaren adierazle) kanpaina. Horrelako beste asko abiarazi dituzte munduan erlearen galerak kezkatuta. Ingurumenaren kutsadura kimikoak ekarri du milioika erleren suntsitzea. Klase guztietako kutsagarriak eta bereziki nekazaritza industrialean erabiltzen diren pestizida eta herbizidek ahuldu eta nahastu egiten dituztela xomorron organismoak, babesak murrizturik naturan ohikoak diren birus eta bakterioen mende utziz.

Pozoiketaz gain, gaur munduan *Apis Mellifera* zaintzen duten milaka erlezainen buruhauste nagusia askoz txikiagoa da telebistek hainbeste maite nauten *Velutina* hau baino, zorri txiki bat da (akaro bat): *Varroa Destructor*. Hau ere ni bezala endemikoa izan da betidanik Asia urruneko *Apis Cerana* txikiaren ondoan, baina erle europarretara jauzi egin zuen 1960 inguruan. Euskal Herrian 1980ko hamarkada arte ez zaizue azaldu.

Urteotan ari da iristen Suedia, Norvegia eta Eskoziako azken zokoetaraino.

Oraindik hemengo erleek ez dute ikasi *Varroa*rekin bizitzeko. Erlauntzarik baldin badaukazu, akaroa hiltzeko botika eman behar diezu derrigor, kimikoa edo ekologikoa, autoritateen bezala erlezainen elkarteekin aginduz. Diote zuretan *Varroa* garbitzen ez baduzu, inguruko erleak kutsatuko dituzula, gauza ulerkaizta ekologiararen ikuspegik, baldin eta sinesten bada munduak erlea beharrezkoa duela bere biziraupenerako. Erlezain eta zientzialari bakan batzuek aldarrikatzen dute botikak justu alderantzizkoa eragiten dutela, bizkarroiaren eta ostalariaren eboluzioa eragozteko.

Noiz hasi zen globalizazioa?

Erle trafiko handia dago munduan. Batzuetan leku batean gehiago behar direlako; esaterako, urtero otsailean AEBetan gertatzen da munduko erle migrazioak handiena, ehunka trailerretan herrialde hartako erlauntzen erdia Kaliforniara daramate almindrondoen liliak ernaltzera. Zalaparta gutxiagorekin, urtero milaka erregina saldu eta erosten dira, birjinik edo laborategian ernaldurik, munduaren mutur batetik bestera, arraza hautatuetaoak, ezti asko ematen dutelako, edo kudeatzeko gozoak direlako.

Ekoizpen industrialerako erle egokiagoak erdiesteko zientziealari antolatutako bidaletako bat amesgaizto bihurtu zen Ameriketara 1956an. Warwick Estevam Kerr entomologo eta genetista brasildarra Sao Paulo inguruan gurutzatu zituen erle europarrak eta Afrikatik ekarritako *Apis Mellifica Scutellata* subespeziekoak. "Africanizadas" eta "africanised" horiek laster zabaldu ziren beheko eta goiko Ameriketara. "Oso gaiztoak dira" dio jende xeheak; adituek, etxearen defentsa gogorra egiten dutela. Erlauntza bati erasotzen dionari erle europarrak metro batzuetan segitzen dio, afrikartuak ez dio bakerik eman go bide luzean.

Sasi-afrikarrok istripu asko eragin dituzte, heriotzak ere bai, baita betiko erle europarrak zirelakoan haien ezti zuhaitzetik harrapatze-jaotan ohitutakoen artean ere. Aldiz, beren erlauntzetan horiek maneatzen ikasi duten erlezain hegoamerikar askok maite omen dituzte, ezitan oparoak eta *Varroa*rekin bizitzeko gai direlako.

Irakurle hori, ohartuko zinen orain arte kanpoko erleek edo haiekin bizi diren beste xomorrok Europakoekin topo egin dutenean gertatuak kontatu ditudala. Baina pentsatzen jarrita, Europako erlea ari da orain

nozitzen bera usatuz munduko beste erle askok aurreko mendeetan jasandako patu bera. Aspaldikoa den mundializazioaren biktimen ordaina.

Apis Mellifera Europa eta Afrikako piztia izan da atzo arte. Ameriketara, gaur AEBak diren lurretara 1622an eraman zituzten lehenak, baina Kaliforniara ez ziren heldu XIX. mendera arte. XIX. mendean sartu zituzten Hego Amerika gehienean ere. Australiara bezala. Ozeaniako uharte askotan XX. mendea oso aurreratuta zelarik. Asian berdin. Nepal 1978an lehenbizikoz!

Horietako aintz lekutan erle euroasiarra nagusitu zaie bertakoei. Bideanabar Ameriketara, atzerakada handia egin dute bertako *Melipona* eta *Trigona* erle txiki eztenik gabeek. AEB, Argentina, Brasil... mundu mailako potentziak dira eztingintzan *Apis Mellifera*rekin. Erleen erremedioak medikuntzan aplikatzen maisu den Kuban, erle europarraren propolia osasungintza publikoan erabiltzen da... baina milioika urtez bertan bizi izandako *Melipona* propolia ez dute aski aztertu.

Ameriketara *Velutina* ez gara iritsi oraindik, aldiz *Varroa* kexu dira han ere. Bertako erleak, aldiz, bi zangoko indigenak bezala, izugarri urritu dira. XVI. mendetik hona Ameriketara Europako gripeak eta elgorriak

bertako jendeen hiru laurdenak hil bazituen, zer nolako triskantza eritasun ez ote die eragin hemengo erleek hangoei?

Ni, liztor asiarra, kolonizatuen mendekua naiz. Ez lehena eta ez azkena euskaldunentzat. Artoa eta babarrunarekin (Indietako baba) batera ekarri zenuten patata denetan zabaldu ondoren bere zomorro endemikoa azaltzen ikusi duzue hemen. XIX. mendean filoxera eritasunak suntsitu zituen Europako gehienekin batera zuen mahastiak. XX. mendean ikusi dituzue gaztainondo gehienak iharitzen, Asia urrunetik heldutako txankroak jota. Beranduago, zumarra da iharu dena hau ere urrutitik iritsitako gaitz batek jota.

Erruki ditut erlezainak, kalte handiak eragiten dizkiegu *Vespa Velutina*. Ordainik gabeko zerbitzua egiten diote ekologiarik bezala gizarteari eta, trukean, malurrak datozkie bata bestearen ondorekin. Haien arazoetan ikusi ditzakete gainerako herritarrek mundializazioaren kalteak. Erraz ekartzen da da Kaliforniatik intsignis pinua etekin azkarra ematen duelako, baina gero hasten dira konplikazioak: harrak, haiek hegazkinetik fumigatu beharra, lurraren azidifikazioa... Jendea gainezka, planeta baratze handi bat da. Ikas ezazue xuxen kudeatzen. ■



Erlezainarentzako ez da bakarrik erleak galtzea edo ezti gutxitzea. Da nire inpunitatea ezin menderatua



DANI BLANCO

**Amaia
Lasa
Alegria**



IDAZLEA

Aldaketa da gure aukera

MAFALDAK, Quino argentinarraren komikigileak sortutako pertsonaia hunkigarri hark, mundu bolari begira zegoelarik maiz esaten zuen: “Zer gaizki zabiltzan!”. Berrogeita zortzi urte igaro dira ordutik hona, ezin esan, hala ere, egoera asko hobetu denik.

Gure munduari begirada zabal, luze, lasai bat botatzen badiogu zein egoera korapilatsuetan eta krudeletan murgildurik gauden ohartzen gara, emazteen ikuspuntutik ikusten badugu bereziki.

Hamazazpi urte igaro diren arren, ezin ahaztu XX. mendearen bukaeran Europan gertatu zen Balkanetako gerra. Konfliktu mintsu hartan andreak –musulmanak gehienak– bahitu eta bortxatzen zituzten etsaia umiliatzeko, objektu bezala erabiliak izan ziren gizonak zigortzeko, hala bigarren sexua izaten jarraitzen dugula erakutsiz.

Desberdintasun biologikoak zentzurik gabeko hierarkia sortu du bi sexuen artean, gizonezkoei lehentasuna emanaz. Guzti honek ez garamatza biktimismo batean sartzeraz. Ez dira kexu antzuak, gure zapalketaren eta bazterketaren arrazoi sakonak baizik

Komunikabideek gezur borobilak esan edo idazten dituzte gainera, politikarien gaizkidetasunarekin noski!

Afganistango eraso hasi zenean, orain dela hamaika urte, Amerikako Estatu Batuetako Gobernuak adierazitako aitazkietako bat zen, bertako emazteak burkatik askatzeko edo zapalduz zeuzkaten gizonengandik salbatzeraz joan zirela. Saminez betetako, amaierarik gabeko urte odoltsuak igaro dira, orain biztanle guztiak, haurrak eta gizonak barne, okerrago bizi dira, nahigabe hauek nahiko ez balira, joan zen hilaren erdi aldera OTANgo soldaduek zortzi emakume erail zituzten bonbardaketa batean, kasualitatea dela esateak ez du sinesgarritasunik.

Emakumeen aurkako bortizkeria komunikabideek egunero dakarten berri zaharra da, herri musulmanen emazteen egoera tamalgarria soilik erakusten digutela, baina txunditurik geratzen gara, Kanada, Australia, Israel, Amerikako Estatu Batuak... bezalako herri “aurreratuetan” ere gertatzen dela jakiten dugunean, ez gara ohartzen murgildurik gauden sistema sozio-ekonomiko honen ondorio bat dela emakumeak egunero jasaten dugun bortizkeria sexual, fisiko edo psikologikoa. Edozein taldetan suertatzen da gainera, arraza, erlijio, baldintza sozioekonomiko, hezkuntza maila edo adinak axola ez duelarik.

Desberdintasun biologikoak zentzurik gabeko hierarkia sortu du bi sexuen artean, gizonezkoei lehentasuna emanaz. Guzti honek ez garamatza biktimismo batean sartzeraz. Ez dira kexu antzuak, gure zapalketaren eta bazterketaren arrazoi sakonak baizik. Ez gara ezer egin gabe geratzen, hamaika mila forma eman dizkiogu gure bizitzari, gure egoeraren aurrean altxatu gara behin eta berriro bide berriak eraikiz.

Hala ere, norbanako borroka espiritualetan izan dira batik bat. Iraultza pertsonal horiek alde batera utzi gabe, orain bi aukera geratzen zaizkigu, besteak beste: gure indar fisikoa garatzea alde batetik, gizarteratzea bestetik; errotik, hondo sakonetik guztia iraultzeko.

Idea zaharrak iraunaraztea aldatzea baino errazagoa da. Bide berriak jorratzea, eraldaketak egitea ez dira inoiz errazak izan. Teoria bat gauzatu arte ez dugu jakiten ideia horrek zenbateraino balio duen, ideien bat mamtzen dihardugunean modu egokian bideratzen dugun ez dugu jakingo batzuetan, ibiltzeke dauden ildoak asmatzea besterik ez zaigu gertatzen.

Gure sozietate hau, teknologia aldetik hartzen badugu, Leonardo da Vincik inoiz amestu ez zuen gizartea dela konaturatuko gara. Orain pertsonen arteko harremanak eraldatzea geratzen zaigu zapaltzaileak eta zapalduak desagertu arte. ■





Inma Errea

ITZULTZAILEA ♦



DANI BLANCO

Peru, Espainia, Katalunia

PERUN ez omen dute gurea bezalako krisirik. Orain dela bost urte balio zutena halako lau balio omen dute etxebizitzek, eta banketxeek erraz (errazegi?) ematen ei dizkiete hipoteka-kredituak herritarrei, soldata bat dutela egiaztatze hutsarekin. Atzerriko enpresak hara jotzen ari dira: Espainiako asko, omen, eraikuntzakoak-eta. Jakina da diruak ez duela ez mugarik ez aberrik. Bitartean, klaseen arteko amildetia gero eta handiago omen, Peruko gizartean: goi klasea eta klase ertainak, gorantz, eta behe klasea, beherantz. Espainiako asimetriaren kontrakoa dirudi, Espainian klase ertainak behera baitoaz behekoa bidelagun.

Galderak datoz errenkan: Perun bezala, non ote da gertatzen ari? Txilen, Argentinan, Brasil...? Asiako zenbait tokitako ekonomiaren gorakadak beste hainbatetako krisiarekin? Eta, zergatik hemengo hedabideetan ez dute oihartzunik Peru bezalako herrietako errealtateek?

Katalunian, Espainiako krisiaren aurrean, beste irtenbide bati ekin diote. Herri independente izatea bizirauteko ezinbesteko baldintzatzen jotzen dute gero eta kataluniar gehiagok (gehienek honezkero?). Han, independentzia ez da jada gutxiengo baten ameskeria edo

hainbat herritarren sentipen lausoa. Hango gizartean abiatutako prozesuei eta eztabaidei buruz ere, berri gutxi Espainia aldean. Gurean, akaso, pitin bat ugarriagoak, baina urriak, edonola ere. Albisteak, diruak ez bezala, banderen aurrean makurtzen baitira, eta mugetan gelditzen, Internet asmatu eta gero ere.

Wert Hezkuntza eta Kultura ministro espainiarak Kataluniako ikastetxei leporatu die independentziarako borondatearen hazkundera. Kontua ez da, hark uste bezala, hango ikastetxeetan ideologia independentista txertatzen dietela hurrei, baina arrazoia du hein batean: Kataluniako jendartean aspaldi abiatu zen kultur eta hezkuntza garapena izan ez balitz, katalanek orain ezinen liokete eutsi hartu duten bideari.

Izan ere, gizarteek aurrera egitea nahi ez duten boteretsuek, beren interesen kontrakoa delakoan, aski ongi dakite herritarrei informazioa, kultura eta heziketa murriztea bezalakorik ez dagoela beren pribilegioei eusteko. Beren irabaziak mugarik gabe areagotzeko, denetarik mugak jarri behar dizkigute gainerako herritarroi.

Hezkuntzan, kulturaren, komunikazioan... Baita geure mapen muga-lerroak aldatzeko borondatean ere. ■

Perun goi klasea eta klase ertainak, gorantz doaz, eta behe klasea, beherantz. Espainiako asimetriaren kontrakoa dirudi, Espainian klase ertainak behera baitoaz behekoa bidelagun



DANI BLANCO



Edu
Zelaieta



IDAZLEA

Zebrabidean

ZEBRABIDEAN gertatu zen: bizikletaz zihoan gizona eta enpresako autoa gidatzen ari zen emakumea traban gelditu ziren, metro erdi eskasera bata bestearengandik, nork zuen lehentasuna garbi ez zegoela. Une labur baten ondotik biek egin zuten aurrera, bizikletako gupil batek eta autoko matrikulak justu itsatsita geratu ziren arte. Ez zen, zorionez, inolako kalterik izan.

Zebrabidetik hamar bat metrora nengoen ni. Ikusi berria nuenak dilematxo bat sortu zidan etxeko bidean: noren alde jarri? Batetik, bizikleta askoz zaurgarriagoa den neurrian, autoak bidea eman

ziola iruditzen zitzaidan. Bestetik, ordea, bizikleta gainean doan pertsona ez da berez oinezkoa eta, alde horretatik, agian autoak ez zuen gelditzeko derrigorrik.

Kontutxoa bazkaltzeko gogoarekin batean zebilkidala, geure oihan heziaren legearekin egin nuen topo: gizon-emakumeak zakar eta bortitz aritu ziren hasieratik; bakoitzak gauza ezberdin bat defendatzen baldin bazuen ere, harrapari jarrera bera erakutsi zuten biek atzapar-letaginetatik, keinu-hitzetatik. Zebraren odol arrastoaz inor gutxi ohartu zen zebrabidean. ■



HEMEROTEKA

AEBetako hauteskunde kanpainari buruzko informazio asko ari da argitaratzen mundu osoko hedabideetan. Baina, zein dira Barack Obamak eta Mitt Romneyk aipatzen ez dituzten gaiak? Noam Chomsky irakasleak Mexikoko *La Jornada* idatzitako artikulua aldatu dugu gurerara.

Obamak eta Romneyk saihesten dituzten gaiak

Noam Chomsky

♦ MASSACHUSETTSEKO MITeko IRAKASLEA

LEHENBIZIKOA egunkarietako lehen orrietan maiz agertzen da. Irailaren 19an, adibidez, Justin Gillisek *The New York Times*en idatzi zuen Artikoko izotzaren urtzea amaitu dela aurtengoz, baina ez aurreko errekorra hautsi baino lehen, eta alarmak berriz piztu dira inguru horretako aldaketaren erritmo azkarragatik.

Datu berriek erakusten dute udako izotza 2020rako desager litekeela, ondorio larriekin.

Baina gobernuek ez diote aldaketa horri erantzun berotegi-efektua eragiten duten emisioak mugatzeko premia azpimarratuz, Gillisek idatzi duenez.

Mitt Romney hautagai errepublikarrak adierazi du ez dagoela adostasun zientifikorik, beraz eztabaida eta ikerketa gehiago egitea sustatu beharko genuke; baina ekintzarik ez, problemak okerrera egiteko ez baldin bada behintzat.

Demokratek euren plataforman aipatzen dute problema badagoela, eta lan egitea gomentatzen dute, beste potentzietan batera emisioei mugak jarriko lizkiekeen akordioa lortzeko. Baina hori da dena.

Beraz badago alderdien arteko diferentziarik: ea zenbateko poztasunarekin egin behar duten korri saguek amildegi-rantz.

Bigarren gai garrantzitsua ere, gerra nuklearra, egunero dago egunkarien azaletan, baina

Lurreko jarduera arraroerik begira legokeen martetar bat harritzeko moduan dago.

Bi jarrera aurrez aurre: Amerikako Estatu Batuek adierazi beharko ote luke eraso egingo duela Iranek arma nuklearrak –beste dozenaka herrialdek dauzkatenak– garatzeko gaitasuna lortzen baldin badu? Ala Washingtonek gehiago definitu beharko luke bere lerro gorria?

Bigarren jarrera da Etxe Zuriarena; lehenbizikoa israeldar gerrazaleek eskatzen dute eta Estatu Batuetako Kongresuak onartzen du. Senatuak 90-1 bozkatu zuen Israelen jarrera babestearen alde.

Eztabaidatzen ez dena da, nola gutxitu edo amaitu daitekeen modu agerikoan Iranek ustez ordezkatzeko duen edozein mehatxu motarekin: erregio horretan arma nuklearrik gabeko zonaldea ezarritik. Aukera erraz dago eskura: nazioarteko konferentzia bat bilduko da hilabete batzuk barru helburu hori lortzeko, ia mundu guztia- ren babesarekin, israeldarren gehiengoaren barne.

Gerra suntsigarritarantz joan gitezke, baita nuklearra izan litekeen gerra baterantz ere. Mehatxu hori gainditzeko modu argiak daude, baina ez dira indarrean jarriko eskala handiko ekintza publikoak ez baldin badaude, aukera probesteko eskatuz. ■



BERTSO BERRIAK

Bozkariora



INIGO AZKONA

**Xabier
Paya Ruiz**

♦

Doinua: Bogart eta Bilintx.

Bazen garaia, bazen garaia,
zorion beteko gaude,
behingoz Gasteizko parlamentuan
aukera guztiak daude!
Ea euskaldunak elkartzen diren
Euskal Herriarren alde,
zer nola esan agintzen duten
atzeko mintegi gabe
ta alderdi baten kide izateko
urguilurik gabe ere.

Ez da egia franko aditu
hauteskundearen harira:
Urkullu eta Lopez makina
politiko hutsak dira,
Mintegik ez du azaldu nola
heldu independentzira...
Hemen garbien mintzatzen dena
Antonio Basagoiti da;
hobe esaten dituen denak
gezurrak baldin balira!

Eslogan eta lelo bitxiak
ez dira gutxi aditu:
“Euskadi aurrera” esan zuenak
ez du ezer deskubritu;
“zu ez bazoaz, haiek garaile”,
nahi bezala entenditu,
eta Mintegik soluzioak
ez ditu ba prometitu...
Aski izango da konponbideak
ekartzen baldin baditu. ■



«Arimadun kantan sortzea izan da gure nahia beti»

Eibarko taldeak baditu hainbat ezaugarri ezohikoak eta berezkoak. Haiei esker daramatza bi hamarkada luze agertokietan, duintasunez eta proposamen irmoetan eroso. Euskal jendartearen –bereziki gazteen– bozeramaile natural izan dira askotan. Metal melodiko ilusionagarria barreiatu nahi dute oraingoan, Ametsak pilatzen disko berria lagun. Aitor Gorosabelek eman dizkigu azalpenak.

| IKER BARANDIARAN |

Ametsak pilatzen. Zer egin daiteke pilatutako amets guztiekin? Baikor zarete Euskal Herriko egoera berriarekin?

Ametsak pilatzeak gauza ezberdinak lortzeko itxaropena edukitzea esan nahi du, bai indibidualki bai kolektiboki. Itxaropena dagoen bitartean, helburu edo amets horiek egia bihurtzeko aukera izango da. Egoera berriak itxaropen handia sortu du Euskal Herri aske a amesten dugunongan. Beraz, bide onetik goazela uste dugu.

Irudimena eta sentimenduak “hegan” utzi beharko genituzke gehiagotan?

Askotan inguruak kateatzen gaitu. Gehiengotan norberaren barruak. Dena dela eta orokorrean hartuta, gure irudimen eta sentimenduak nahiko aske uzten ditugu, gure ustez. Ez ginateke gauden tokian egongo bestela.

Aitor, azkenean baxuak zeuk grabatu dituzu diskoan. Gogorra izan da baxu-jotzaile finko gabeko garai luze hau, hain justu taldearen urteurrenean?

Gauzek beti ematen dute ezegonkortasuna, finkoak ez direnean. Lana eta ardura gehitu egiten da eta horrek beti dakar desgastea. Gauza txarrek zerbait ona dakarte beti ordea, eta aldaketa hauek gertatu izan ez balira, ez genituzkeen Igor Oyarbide kuttuna, David Zarzosa eta orain gurekin dagoen Igor Diez zaratamoarra inoiz ezagutuko. Egia esan, une honetan oso gustora gaude.

Zer ekarri dio Igor Diezek taldeari?

Igorrekin jotzea zoragarria da; izugarrizko teknika dauka, berehala ikasten ditu kantan, oholtza gainean beti irrifartsu eta baikor,

esker onekoa da eta gainera gaztetasuna eta freskotasuna islatzen ditu.

“Dihardudan ogibide maitatu honi emango dizkiot eskerrak”. Zer galdu eta zer irabazi duzue ogibide honekin? Gauzak asko okertu dira musikarien alorrean?

Askok irabazi dugu: bizitzeko era ezberdina, afizioa ofizio bihurtzea, gure pentsatzeko era zabaldu ahal izatea, pertsonen bihotzetara heltzea eta jendeak maitatzea, lagunak egitea, tokiak ezagutzea. Hori eta gehiago. Ogibide honek izan ditzakeen gauza txarrak albo batera gelditzen dira aurreko gauzekin. Bestalde, egia da, musikaren industria galdu xamar dabilela eta gehiengoak lan handiagoa egin behar duela gutxiago irabazteko. Teknologia berriek eta globalizazioak orokorrean sortutako gainbeheran sartuko genuke okertze hori.

Zuen kanta gogorrenak ere balada bihurtzen dira askotan (eta alderantziz) eta *hit*-ak idazteko abilezia handia duzue. Horretaz jabetzen ote zarete idazterakoan? Zer nahi izaten duzue transmititu?

Ez gara kontziente. Ez dakit trebeak garen edo ez *hit*-ak egiteko orduan. Kontuan izan guk barrutik ikusten ditugula kantan eta zorritarrez sekula ez dugula entzule bakoitzarentzat kanta bakoitza zer den inoiz jakingo; gure kontzertu bat zuzenean ikusi eta entzuteko aukerarik izango ez dugun bezala. Esan nahi duguna da, ezin dela jakin kantu batek funtzionatuko duen benetan jendaurrean eraman arte. Termometroa jendea da. Berak bihurtzen du kanta *hit*. Gu indarra eta musikaltasuna bilatzen saiatzen gara, bai musikan



ANDER GILLENDEA

“Beti tente eta tinko, eginez, ekinez, nire bidea egingo”. Ez dago zalantzarik Su Ta Garrek hori lortu duela.

Inguruak norberarengan eragina duen arren, barruak esaten ziguna eta diguna egiten saiatu gara beti. Onerako eta txarrerako. Batzuetan asmatuko genuen eta beste batzuetan ez. Baina esaten eta egiten dugunarekin konsekuente izaten saiatzen gara, eta batez ere gure buruekin eta pentsatzen dugunarekin zintzoak eta fidelak izaten.

“Ez dut behar gauza materialen multzoa, beso artean hartzean nire haurtxoa”. Bizitzari, natura-

ri, begiratzeko esaldi ederra. Hain kezkatuta zaudete materialismo eta teknomenpekotasunen arriskuekin?

Bai. Kanta berak beste pasarte batean zera dio, materialismo eta batez ere teknologia berriei zuzenduta, “desabantaila eta onurak, agian asko, agian gutxi”. Teknologia berriek abantaila handiak eskaintzen dizkigute, noski, baina horien truke ordaindu beharreko saria garestitxo delakoan nago. Alienazioa ez da nolana hikoia.

Nola konbentzitu duzue nor eta Pablo Cabeza promo-orria egiteko?

Aspaldidanik ezagutzen dugu Pablo, eta kazetari eta musika kritikari bezala asko miresten dugu. Bere buruari inoiz protagonismorik eman ez dion benetako kazetari horietakoa da. Bere idazteko era aberats eta poetiko hori Euskal Herriak eman dituen taldeak bultzatzeko eta motibatze besterik ez du erabili. Oso ona da. Hemendik eskerrak betiko. ■



eta bai hitzetan ere. Arimadun kantak sortzea izan da gure nahia beti. Hau da, zerbait esango dutenak.

Aitor, ahotsarekin dezente esperimentatu eta bestelako tinbre eta tonoa hartu dituzu; tartean blueseroak Pettiren tankerara...

Petti kantari izugarri ona da! Egia esan, ez da nahita egindako zerbait izan. Jakingo duzunez 2003. urtean kiste bat kendu zidaten ahots korda batetik eta nahi eta nahiez zerbait aldatu da nire eztarrian. Onerako eta txarrerako.

Kantuen hitzak soberan egon daitezke sentimendua pilpilean dagoenean?

Bai, baina Borxak idatzitako “Kantarik Politena” abestiak, dauzkan hitzak izango ez baliu, kanta ez litzateke hain ona izango. Zoragarriak dira hitzak. Jendeak uler dezan eta laburtuz, “Maite zaitudalako, kantatzera etorri naiz, letra soberan duen kantarik politena... kantarik politena... kantarik politena... zeu zara”.

KANPORAKETAK

B D G R

Bizkaiko Bertsolari Txapelketa 2012

www.bizkaikotxapelketa.biz

FREDI PAIA
ANDER ELORTEGI
IÑAKI ITURRIOTZ
MALEN AMENABAR
PERU VIDAL
TXABER ORMAZABAL

EKAITZ LARRAZABAL
IGOR ELORTZA
GARIKOITZ SARRIUGARTE
GORKA LAZKANO
JOSEBA ARTZA
NEREA IBARZABAL

MUNGIA
Urriaren 27an, zapatua
17:30ean
Olalde aretoa

SOPELA
Urriaren 28an, domeka
17:30ean
Frontoian

argia

MUNGIA UDALA

bbk

Estoldetatik kontrakulturan

Izu Giroa euskarazko hardcore eta punk fanzineak 10 urte bete ditu. 21. zenbakia besapean duela etorri zaigu Gotzon Hermosilla fanzinearen arduraduna. Irailean argitaratu zen, espresuki Azpeitian egin zen II Fanzine Egunerako. Euskal Herriko fanzine gehienak bildu ditu aurtengo bigarren edizio honek, nahiz eta zaila den zenbat diren jakitea.

| MYRIAM GARZIA |

EZ DUTE arau libururik, ezta kode deontologikorik ere. Fanzine batek bere horretan agertzen ditu gauzak, askotan gordin eta tinta orbelaz, fotokopiagailuari eta grapagailuari gogor ekin eta gero. Baina haiei dagokie errealitatearen zati hori, lur azpikoa alegia, askotan ohiko komunikabideek kontatzen ez dutena agertzen baita bertan.

Hamar urte daramatza *Izu Giroa* kontrakultura deituriko eremu horretan murgilduta. Punka eta hardcorea ardatz hartuta, 21 zenbaki kaleratu dituzte epe horretan. Fanzineen artean ez da ohikoa bizirik daraman denbora, 10 urte, ezta plazaratutako argitalpen kopurua ere, 21 zenbaki. Baina urteotako jarraitortasunaz arduratu den Gotzon Hermosillarentzat, “gogokoa dutelako egiten da”.

Azpeitiako Gaztetxeak antolatutako II. Fanzine Egunerako argitaratu den azken zenbaki horretan Euskal Herriko punk eta hardcore musika taldeak aipatzen dira, hala nola, Porco Bravo, Humilitate eta Desastrozombies. Baita kanpokoak ere. Esate baterako, All for Nothing, Mundo Muerto, White Lung, Ten O Sevens eta UX Vielheads. Bestalde, Dani Marco madrildarrak Buzzcocks taldeari egindako elkarrizketak osatzen du zenbakia.

Erreportaje eta dossierretan, berriz, Skate-aren eta punk mugimenduaren arteko erlazioa azaltzen duen artikulua genuke aipagarri. Baita *Neguko Kuartelak* izenburupekoa ere, punkaren garaian esanguratsuak izan diren etxeak nahiz egoitzak aipatzen dituen lana. “Adibidez, Fun House, Michiganen The Stooges taldeak zuen komuna —azaldu digu Hermosillak—. Baita beste zenbait squat ere. Euskal Herriko esanguratsuenak aipatzearen, Barakaldoko Bunker eta Donostiako Buenavista”.

Txori komikigileak egindako irudia darama azalak, Porco Bravoren omenez. Azal gehienak hark eginak dira *Izu Giroa* kide Hermosillak nabarmendu digunez, “oso sortzailerak da Txori, komikigilea eta lagun ona dugu”.

Zuk zeuk egin!

Punk-hardcorearen kontrakulturan diharduen fanzine hau euskaraz egiten den bakarra da, eta horregatik, irekiak izan behar dutela diosku Hermosillak: “Saiatzen gara punk eta hardcore mugimenduen esparrua ahalik eta zabalen hartzen. Azken urteotako fanzineen joera espezializazioa izan da. Fanzine batzuek hardcoreaz hitz egiten dute, baina hardcore molde jakin batez. Oi! mugimenduko fanzine asko dago, adibidez. Baina gu zabalagoak izaten saiatzen gara. Alde batetik, euskara hutsezko

fanzine bakarra delako, eta bestetik, gu ere oso irekiak garelako estiloak dagokienez”.


Azken bi urteetan Euskal Herrian fanzine berri asko sortu dela aipatzen digu kazetariak, nahiz eta blogen garaia nagusi izan. “Bazirudien blogaren, ezinearen eta Interneten sorrerarekin paperezko fanzinearenak egin zuela, baina ez da horrela izan. Euskarria gorabehera, garrantzia duena edukia eta informazioa da, eta alde horretatik, paperezko fanzinea esku artean izateak edota kontzertu batera joan eta fanzineak saltzeak oraindik ere xarma duela iruditzen zaigu”.

Kalifornia aldeko Lewd taldearen *Climate of Fur* (Izu giroa) abestia aukeratu zuen Gotzon Hermosillak 2002an sortu zuen argitalpenaren titulutzat. “Izugarri gustatzen zitzaidan abestia, izen indartsua iruditzen zitzaidan”. Bestalde, kritika eta ironiarako ere badu tarte *Izu Giroa* k, Joseina Etxepastillak egiten

“Undergrounda eta euskalgintza bi muturreko eremu direla ematen du, eta guri gustatuko litzaiguke bi mundu horien arteko zubi lana egitea”

Gotzon Hermosilla

Izu Giroa



duen ataltxoa kasura. “Beti saiatzen gara jendea zirikatzen. Fanzineak horretarako daude, ironia eta kritikarako. Osagarri horiek kenduta ez litzateke berdin izango. Ez litzateke behintzat, fanzinea izango”.

Do it yourself (Zuk zeuk egin) punk-ak eta hardcore-ak bultzatutako filosofian bete-betean daudela dio Hermosillak. “Borondatezko lana da dena, inork ez du ezer kobratzen, eta fanzinea, azken finean, gure zaletasun baten luzapena da. Dena den, *Do it yourself* filosofiaren osagarriak kolaborazioa izan behar du nire ustez. Kontzeptu biak uztartu behar dira, norberak egitea bai, baina baita kolaborazioa bultzatzea ere. Horregatik, esparru ezberdinetako kolaboratzaileak erakartzen saiatu gara beti”. Zentzu horretan, Alberto Irazu (*Gaztezu*), Juke Box eta Santi Manterola argazkilaria, Dani F. Marco, Aitor Apurto edota Xabier Sagardia (*Entzun!*) tartekako kolaboratzaileak dauzkate. “Sare horrek, nahiz eta apur bat etereoan izan, aberasten du fanzinea”.

Izu Giroaren tirada 200 eta 300 ale artekoa izaten da, 52 orrialde fotokopiatuta, 2 euroren truke. “60 orrialdekoa ere egin izan dugu, baina hortik aurrera grapagailuak ez du grapatzen”, espikatu digu Hermosillak. Euskaraz izanik, nagusiki Euskal Herriko taberna eta gaztetxeetan banatzen da, “baina saiatzen gara kanpora ere ateratzen. Adibidez, elkarrizketatutako taldeei igortzen zaie, eta baita Europako eta AEBetako beste fanzineetara ere. Bitxia da, Espainian gutxi ezagutzen den fanzinea da gurea, baina gero oso kritika positiboak jaso ditugu. Alemaniako eta AEBetako fanzineetan, aurreiritzi gutxiago dituzte, nonbait. Horrek harritzen eta harrotzen gaitu” jarraitu du *Izu Giroako* arduradunak. Hala ere,

“gure asmoetako bat monografiko edota bildumatxo bat egitea da, argitaratu ditugun elkarrizketak ingelesera eta gaztelaniara itzuli-ko genituzke, kanpora begira”.

Mostros eta NCC taldeen kontzertuarekin ospatu zuten urte hasieran fanzinearen 10. urteurrena baina Gotzon Hermosillak ez du aitzakia hori bera hartuta beste kontzerturen bat egitea baztertzen. Urte amaierarako, beharbada. “Underground eremuan murgiltzen gara, eta normalean beste fanzineekin edota hardcore eta punk musika taldeekin dugu harremana. Eta nahiz eta fanzinea euskaraz izan, euskalgintzak ez du gure berri, gure esparrua beste bat delako. Zoritzarrez, undergrounda eta euskalgintza bi muturreko eremu direla ematen du, eta guri gustatuko litzaiguke bi mundu horien arteko zubi lana egitea. 10 urte eman ditugu kalean, euskara hutsezko fanzinea egiten, eta euskaldun askok ez du gure berri, gure akatsa ere izan da seguruenik”. ■



CAMPOS

1921-ETIK, CAMPOS-EK
HEGALUZE-KONTSERBA EGITEN DU
DENBORAREKIN HARTUTAKO OHITUREI
ESKER, HEGALUZERI ONENA BILATZEN
DU ZUK, GAUR, KALITATEZKO PRODUKTU
GOZO BATEKIN GOZATZEKO.

Gure webgunean erosi: www.clubcampos.com

«Nire *slow life* egiteko modua da literatura»

Informatikaria da lanbidez, baina aurkitu dio euskal letrei lotuta jarraitzeko modua, ofizioa eta afizioa nolabait uztartzekoa, X taldean baitihardu. *Alter Ero* bere bigarren ipuin-liburua plazaratu du Susa argitaletxearen eskutik.

| GARBINE UBEDA GOIKOETXEA |

Nolakoa izan da zure afizioa liburu bilakatu arterainoko bidea?

Zorteia izan dut. *What a wonderful world* ipuinari esker Donostia Hiria saria irabazi nuenean, Ereineko Iñaki Aldekoarekin egin nuen kontaktua, hura epaimahaian baitzegoen. Ipuin hori oso gustuko zuela esan zidan, eta besterik baldin banuen, bidaltzeko. Hortik argitaratu zen lehen liburua, 2004an. Behin lehena atera duzunean, lotsa galtzen duzu, edozein editoreekin harremanetan jartzeko ere.

Erraza izan al da erditzea bigarren honetan?

Ezta batere. 2008an aurkeztu nien liburua Susakoei, eta lau urte pasatu dira geroztik. Horrek ez du esan nahi tarte horretan etengabe txukunketan eta zuzenketa aritu garenik, bi urte erabat geldirik pasatu baititut. Urtebetez eskusiboki tesia bukatzen aritu nintzen. Ondoren aita izan nintzen eta beste urtebete joan zait. Gero, martxa hartu nahi izan nuenean, beste saltsa batzuetan ari ziren Susakoak. Bestalde, zuzenketa handiak egin behar izan ditut, lau ipuin atzera bota eta beste hiru sortu ditut. 2008ko hartatik hona, asko aldatu da liburua.

Esan nuen aurkezpenean ere, idazleari eman dakioken altxorrik handiena autokritikarako gaitasun hori garatzea da. Gogorra izan da prozesua, lan handia izan delako, baina oso pozik nago. Ikasteko aukera izan dut.

Nondik nora sortzen da ipuina?

Bakoitzak bere modua du, eta ipuin guztietan ere ez da berdina prozesua. Askotan, etorri



"Idazleari eman dakioken altxorrik handiena autokritikarako gaitasuna garatzea da".

zaidan irudi bat izaten da abiapuntua, ez dut esan nahi derrigorrez ipuinaren hasiera denik. *Stand-by* ipuina, adibidez. Benetan ikusi nuen hor aipatzen dena, gizon trajedun bat, ez horregatik dotorea, zarpail xamarra, hondartzan eserita udaberriko egun batean. Bat-batean plastikozko botila bat hartu, itsasora joan eta urez bete zuen. Eta maleta berezi batean sartu zuen botila. Irudi bitxia, inondik ere, grabatuta gelditzen den horietarikoa. Gero, noski, horren azpian norberaren minak daude. Irudi batetik abiatu eta ipuina osatzea nire barruko minak azaleratzeko modua da, modu esplizitoan ez bada ere.

Literaturak salbatzen zaituela diozu.

Presaka bizi garela askoren ustea da. Gauza gehiegi egin nahi izatera eramaten gaitu horrek, eta gehiegi egin nahi izate horrek,

bizitza ezberdinak bizi nahi izatera. Zerotik hasteko gogo handiegia dugu. Hain azkar bizita ez gara gai daukaguna balioztatzeko. Daukaguna eten eta beste bizitza bati ekin nahiko genioke, eta gero beste bati, eta beste bati. Erotzeko modukoa dela iruditzen zait. Zentzu horretan, literaturak salbatu egiten nau, behin eta berriz zerotik hasteko aukera ematen didalako erotu gabe, eta bizi ezin ditudan bizi guzti horiek bizitzeko aukera ematen didalako. Hortik dator liburuaren izenburua, *Alter Ero*.

Zer da ipuinetan bilatzen duzuna?

Emozioak sotilki sortzea interesatzen zait. Heriotzaz hitz egin nahi baduzu, heriotzara kondenatuta dagoen baten istorioa izan daiteke abiapuntua, pertsona horren burutapenak xehe kontatzea. Abiapuntu horretan, irakurlea nolabait defentsiban jartzen duzu, alertan. Badakizu gogorra eta tristeia izango dela, oso esplizitoa baita. Hori ez da nik egin nahi dudana literatura. Niri interesatzen zaidan bidea bestelakoa da: hemen zerbait gertatu da, agian, ez dakigu zer pasa den, baina bada min bat.

Ordezko atezainaren balada ipuinean ere heriotza da ardatza, eta ez da hain sotilki aipatzen.

Ez, egia da. Ipuin liburua uste baino heterogeneoagoa atera da. Nik bilatzen dudana sotiltasun hori batez ere azkenik idatzi ditudan ipuinetan ageri da, eta kurioski liburuaren bizkarrezurra osatu duten ipuinetan: *By Pass*, *Stand By* eta *Bye*. Nolabait esanda, beste etapa batekoa da aipatu didazun ipuin hori, zortzi urtetan egindako liburua denez. Kirolean galtzailearen rolaz hitz egitea nuen buruan, baina irabazlearen ikuspuntutik. Kontraesan hori gustatzen zitzaidan ipuin horretan.

“Irudi batetik abiatu eta ipuina osatzea nire barruko minak azaleratzeko modua da, modu esplizitoan ez bada ere”

Zortzi ipuinetako protagonistei begiratuta, zure *alter ero* guztiak gizonezkoak dira.

Egia esan, nitasunetik idatzita dago. Emakumezko alter egorik ere atera zitekeen baina oraingoan ez da atera. Aurreko liburuan bazen emakumezko protagonista bat eta gustura gelditu nintzen orduko hartan, baina liburu hark fikziotik gehiago zuen. Hala egoitu da.

Zer aportatu nahiko zenioke Euskal literaturari?

Idazterakoan ez diot problema horri erreparatzen. Ahalik eta askatasun handienaz idaztea da nire helburua. Ur Apalategiri iruditu zitzaion ez diodala erreparatu ez kritikariei, ezta euskal literatura osatzen duten irakurle talde, kritikari eta gainerako elementuei ere. Akaso irakurleei erreparatu niela, baina ez harreman fidel eta luzarokoa sortzeko asmoz, bai-

zik eta txunditzeko. Poztu ninduen. Irakurtzea gustatuko litzaidakeena idazten saiatu naiz, irakurleak kontuan hartu gabe. Horrek, noski, arriskua du, azkenean argitaratu behar duzulako.

Nire *slow live* egiteko modua da literatura, eta jendea pikutara bidaltzeko eta nik nahi dudana egiteko dudana eremu bakarra, kasik.

Zeintzuk dira zure gustuko idazleak?

Xabier Montoia aipatuko nuke, kasu honetan. Izugarri gustatu zitzaidan *Gasteizko Hondartzak*. Liburu honetan bere eragina badagoe iruditzen zait, batez ere ipuinak kontatzeko eran. Hari bati jarraiki zerbait kontatzen ari zara, eta ia esplikaziorik gabe elkarrizketa bat sartzea bezalako gauza tekniko batzuk, haren eragina dira. Harkaitz Cano, Eider Rodriguez... Horiek nire belaunaldikoak dira eta beti jarraitu ditut gertutik. ■



IBERNALO

landetxea - jatetxea

Gozatu naturaz: hipika, arrantza, golfa, eskalada, amildegiak...






01110 Kanpezu (Araba) - ☎ 945 102 271 / 647 911 484 - www.ibernalorural.com



Haurren literatura

Ametsi tripek hitz egiten diote.
Antxiñe Mendizabal.
Ilustrazioak: Iosu Mitxelena.
Elkar, 2012. 32 orrialde.

Non dago aitona?

ANTXIÑE MENDIZABALEN istorio honen bidez Ametsi gaztetxoari jazotzen zaion kontu bat azaltzen zaigu. Amets ezin da lasai egon, ez da lasai egoten. Irakurleak liburuaren azalean bertan, paratestuen bidez (izenburua, Iosu Mitxelenaren irudi argia...), ikusiko du Ametsen arazoa duela. Are gehiago, ipuinaren hasieratik bertatik adierazten zaigu zer den Ametsi gertatzen zaiona: “Ametsi, ohera sartu eta begiak itxi orduko, tripek hizketan hasten zaizkio (...) Hain dira handiak hotsak, ezinezkoa zaiola lokartzea; ezinezkoa”. Eta horixe da Ametsen duen arazoa, honen zergatia, baina, ez zaigu ipuinaren amaiera arte adieraziko, ez dugu jakingo —kontakizunean zehar zenbait pista azaldu arren— zergatik dagoen horrela Amets, zergatik behar duen norbait ondoan oheratzen denean.

Gauari edo bakardadeari beldurra dionaren istorioa dirudi kontakizunak, baina amamarekin duen harremanean aitona hutsunea nabaritzen da eta amonak haren falta sentitu arren gertutasun handiz hitz egiten dio aitona; horrela, Ametsen tripa orroak direla eta, aitona txikitan gertatutako istorio bat kontatuko dio Ametsi: aitona tripetan egokitu zen zizare izugarri luze eta gosetiarena, aitona elikagaiak irensten zituen.

Iloba eta amonaren arteko giro goxo horretan amonaren komentarioak ipuinaren nondik norakoa hobeto ulertzen lagunduko digu: “Zuk tripetan korapilatuta daukazuna, aitona zizarearen antzera, larritasun handiren bat da”.

Liburu egileek, gure artean oso gutxitan ukitzen den gaia ekarri digute haur txikien liburueta: familiako kide baten heriotza eta desagertzea horren aurrean txikiak sentitzen eta senti dezaketen. Testuak, arestian komentatu bezala, amona eta ilobaren arteko harremana adierazten digu, amonak kontatzen dion gertakari horretan zentratuta neurri batean; irudiak berriz, batzuetan kolore biziak erabili arren, nahiko grisak dira, barnekoak, irudi errealistak erabiliz, nahiz eta zenbait elementu fantastiko agertu sarritan; eta irudi horietan nahikoa da Ametsen begien jarraipena egitea umearen samina, beldurra, harridura, interesa edo, amaieran, negarra ikusteko.

Istorioren amaieran tripetako korapiloa askatu arren (amona eta iloba ohean etzanda biak negarrez ageri dira irudian), Ametsen hutsunea ez da bete, kezka ez da desagertu. Irakurleak, baina, badaki Ametsen tripek jada ez diotela hitz egiten, Amets lasaiago dagoela eta amonarekin izaniko elkarrizketaren ondorioz hutsune eta gabezia horien aurrean bizitzen ikasten ari dela. ■



Xabier Etxaniz Erle

27 ahots, ozen mintzatzeko gogoz


OUTSIDER ETA KILLERTZAT du bere burua Miel A. Elustondok. Beharbada horregatik, agenda publikotik at dagoen jendea hautatzen du elkarrizketatzeko. Aurpegi ezezagunak izan ohi dira, baina ahots indartsuak, esateko eta kontatzeko historia eta bizipen interesgarriak dituzten ahotsak. Profil horretako elkarrizketak bildu ditu *Zozoen Elean* liburuan ere, ARGIAN bertan, *Berria* egunkarian eta *Administrazioa Euskaraz* agerkarian kaleratu dituen solasaldieta-tik arrantzatuta. Tartean dira Maribi Legarra beiragilea, Argitxu Noblia Seaskaren lehen burua, Inazio Olarreaga diasporako euskalduna, Marikita Tambourin idazle eta irakaslea, Jokin Urain preso, Gabriela Vieira da Silva agiririk gabeko etorkina, Mohamed Xukri poeta, Eugenie Acordagoitia euskal amerikarra, Javier Arzuaga fraide frantziskotarra, Gabriel Arestiren alargun Meli Esteban, Gonzalo Etxebarria margolaria...

Eta horien guztien hitz-aspertua irakurtzen baino, entzuten ari dela irudituko zaio irakurleari, toki eta une horretan dagoen lekuko isila dela, galdekatuaren haserrealdien, isiluneen, momentu sentiberen eta pozen testigu. Ahozketasuna molde naturalen islatu baitu idatziz autoreak. Azken finean, euskara eta euskal hiztegiaren baliabideak trebeziaz darabiltza Elustondok, eta elkarrizketetako hizkuntza aberatsa eta bizia irakurlea bereganatzeko amu da sarri.

Utrisque Vasconiae argitaletxeak abiatutako Solas Literarioak bildumaren lehen alea da *Zozoen Elean*: guztira, hainbat arlo eta interes biltzen dituzten 27 solasaldi; 15 gizon eta 12 emakume; 27 ahots indartsu, ozen mintzatzeko gogoz. ■



Mikel Garcia Idiakez



Zozoen elean.
Miel A. Elustondo

Utrisque Vasconiae,
2012.

Metalaren estalpean konposatzea

Ez gara inoiz hilko Eraso!

Bonberenea Ekintzak.
Iraupena: 42'58".
10 euro.



EZ GENUEN Zarauzko taldearen itzule-
ra espero, baina aitortu digute denbora
honetan erritmo lasaiagoan entseatzen
aritu direla eta ez dutela taldea hiltzen
utzi. Eta azkenaldi honetan baxu jotzai-
lea Barricadarekin partekatzen dute.
Eraso! metalaren koordinadatan mugitu
da beti. Alabaina, rockerako hurbil-
keta ere izan da taldearen marka, eta
honakoan joera hori areagotu dela
esango nuke. Metal melodikoa leku
handiagoa hartzen ari bada ere, eskola

zaharreko thrasha ez da erabat ezkuta-
tu, ezta metal pisutsu modernoagoa
ere. Baina bada gaur bertan sailkatzeko
zailtasunak ematen dituen *Gaur ez bada
bihar* moduko pieza ezohikorik, edo
balada, rock gogorra eta stonerra
ezkontzeko gai den *Malkoa*, besteak
beste. Oraingoan, inoiz baino nabar-
menago, inorekin ez dela ezkontzen
erakutsi du laukoteak. ■

www.myspace.com/erasomania

ERASO!

«Sentiberatasuna eta gogortasuna batuta, kante-
k indar eta sinesgarritasun handiagoa dute»

Sergio, ahots erregistro desberdin
asko erabili dituzu, batzuk orain
arte ezohikoak...

Beti jolastu nahi izan dut erregis-
tro desberdinekin. Eraso!-k ez du
metal edo rock arloan talde askok
egiten duten bezala ahots baka-
rrarekin jolasten. Gure ustez,
hitzekin jolastuta, sentiberatasuna
eta gogortasuna batuta, indar eta
sinesgarritasun handiagoa ematen
da. Baina egia da oraingoan
gehiago esperimentatu dudala
ahots eta koroekin, baita bigarren
eta hirugarren ahotsekin ere.
Begirada berezia ematen dio dis-
koari.

“Lurraren eta uraren artean, bien
arteko eremuan”. Hanka bat meta-
lean eta bestea rockean daukazue.
Oreka zaila da?

Gauza berriak probatu nahi geni-
tuen, gure bost diskoak desberdi-
nak dira eta inoiz ez gara mugimendu
baten barruan egon. Rock
zaleentzat metaleroak gara eta
metaleroentzat arraroak edo roc-
keroak, baina gure filosofia eta
izaera metalean daude.

Disko honetako *tempoa* pausatu-
goa da. Hala irten da?



GORKA LASA

Baliteke pausatuagoa izatea baina
disko guztietan erabili izan ditugu
horrelako *tempoak*. Hala ere, disko
honetan badira inoiz erabili ditu-
gun pasarterik azkarrenak ere. Ez
dugu nahita egin, horrela atera dira
kantuak.

Gauza asko aldatuta ikusi dituzue
musika eszenan, itzulera honetan?

Kontzertu eza. Lehen askoz ere
kontzertu gehiago egiten ziren,
gaur egun ez dago horrelako
eskaintza zabala. Gaur egun rocka
ez da hain arriskutsua gazteentzat.
Eta jende gutxiago hurbiltzen dela

kontzertuak ikustera. Hori ere
ikusi dugu.

“Argazkia” zeharo aldentzen da
metaletik, eta rock alternatiboan
kokatuta ikusten dut.

Rock alternatiboa asko gustatu
zaigu. Gure eraginetako bat da.
Eroso sentitzen gara horrelako
gauza desberdinak egiten. Gure
jarraitzaileek ere badakite Eraso!-k
nahi duen kantua egin
dezakeela bere eske-
matik aldentuta.
Horrelako kante-
koa aberasten dute. ■



11 ordu bertsoan

URRIAREN 27AN, larunbatez, Arabako bertso eskolek 30 urte bete dituztela ospatuko dute, egun betez. Asier Lafuente Arabako Bertsozale Elkarteko Sustapen eragileak azaldu digunez, “11 ordu horiekin ugaritasuna irudikatu nahi genuen, batetik, eta bertsoa kalera eta jendartera atera, bestetik”.

1982an Gasteizen (Txusta tabernan) eta Aiara (Aretako Tunel jate-txean) erein zen bertso eskolen hazia. 30 urteren ostean izugarri ugaritu dira Araban bertsolaritza lantzen duten taldeak: 11 herritan daude bertso eskolak, eta guztira 29 taldetan 190 lagun biltzen dira. Hezkuntza arautuan, berriz, 2.200 haurrek ikasten dute bertsolaritza 41 ikastetxetan.

11 ordu bertsoan ekimenen era guztietako saioak dastatuko ditu

entzuleak. 11:00etan emango zaio hasiera Arabako Bertsozale Elkartaren egoitza den Amaia Zentroan. Bertso eskolen sortzaileetako bat izan zen Patxi Aizpuruak kantatuko du hasierako agurra. Segidan, Gasteiz Europako hiriburu berdea dela baliatuz, bertso eskolek ondu dituzten bertso sorta berdeak kantatuko dira, “berde”aren tonalitate guztietakoak (ekologikoak, sexuak, poliziakoak...).

Jarraian, Bertxorakeriketa abiatuko da tabernaz taberna. Izena eman duten bertsolariek zozketaz jakingo dute zein tabernetan eta zein bertsolariren aurrean kantatu beharko duten, beren burua defendatu eta parekoa etzanaraziz. Bost minutuko konbateak izango dira, gai librean. Dagoeneko 14 bertsolarik eman dute izena, besteak beste, Irati Anda, Juan Mari Juaristi, Iker Olabarrieta, Ainara Balantzategi eta Asier Iriondok...

Eguerdian bazkaria egingo da Landatxo kiroldogian eta bazkalostean jokatu da bertxorakeriketako finala, era guztietako ariketekin.

Arratsaldeko lehen orduetan Bertsodantzaplazan egingo da Landatxon bertan, Araban arrakasta handia lortu duen ekimena. Lautadako bertso eskolako Jotafa euskaldunen txarangak dantzako doinuak joko ditu, baina Oihane Pereak eta Izar Mendigurenek bertsoan markatuko dute erritmoa. Gorka Urturi

animatzaileari esker, bertaratutakoek hainbat dantza pauso ikasteko aukera izango dute.

19:00etan bertso batukada egingo da lehen aldiz, Kutxi kalean zehar. Rapean zaildutako Iñaki Viñasprek eta Iker Pastorrek batukada erritmora inprobisatuko dute.

20:30etan Jimmy Jazzen egingo da bertso eskolak omentzeko gala. Bertso eskoletan aitzindari izan ziren Serapio Lopez eta Zigor Enbeitak kantatuko dute hasierako agurra. Ruben Sanchezek euskararen eta bertsoaren gaineko bakarrizketa egingo du eta bertso saioak Arabako bertsolariak eta beronekin harremana izan duten beste lurraldeetako bertsolariak elkartuko ditu. Bertso eskola bakoitzetik ordezkari bana igoko da oholtzara, omenaldi xumea jasotzera.


22:30etan Jimmy Jazzen Bertso Tavern emanaldiak itxiko du eguna. Behin baino gehiagotan eskaini duten moduan, Manex Agirrek, Ander Solozabalek eta Jagoba Apaolazak irlandar musikarekin egingo dute bertsoan.

Antolakuntzan murgildutako Asier Lafuente egun berezi horretan parte hartzeko gonbitea luzatu dizu “30 urte ez dira urtero betetzen, eta bertsolaritza Araban euskararen akuilua da, funtzio hori betetzen jarraitzen du gaur ere”. ■



Ezkerretara 11 ordu bertsoan ekimenaren kartela eta Bertxorakeriketa dueloan parte hartzeko deia. Lerron gainean, Gasteizko bertso eskola 1982an.

Hitz gezidunak

MUGATUTA-KO DENBORA DROGA		URTEBETEKO ZALDI IDI ZAINZAILE		UGAZABA, NAGUSI		GIBELA TORTURAREN AURKAKO TALDEA		FESTA KONTSONANTE ERREPikatuta		PAIRE BAT PERTSONAIAREN BIZILEKUA		... BESO, ELKARRI BESOTIK HARTUTA ERDEINUA
				IRTENBIDE ERBIOA								
PERTSONAIAREN ABIZENA NAZARETE-KO HERRITAR										EINSTENIOA AIREONTZI		
									GAUBEAKO MENDIA APOTE			
EGUNEROKO JANGAI	ALUMINIOA PERTSONAIAREN IZENA							ZALDI ERO				
			MAZI, BEITA						ZAKURRA ERABAT, ZEHARO			LIRAIN, DOTORE
EGOKIA LEKU ATZIZKIA												
		PROGRMAZIO LENGOAIA USO AR							JAIOPERRIEN ELIKAGAI BAITA			
EGUR LANDARE BASATIA				JANARI SINDIKATU ABERTZALEA		1500 NAFARROAKO IKASTOLEN ELKARTEA		ENERGIA SORTU ZINTUENA		NONDAR ATZIZKIA JELTZALEEN ALDERDIA		
												500 AZKENA ETA LEHENA
EREITEKO LURRA ALEMANIAKO HIZKUNTZA						MEATEGI ROENTGEN						
									BERTARATU			

Kike Amonarrizzen umorea

Hauteskundeak

Hauteskundeen aurreko asteburuan herritarren iritzia jasotzera irten da kale-ra kazetaria. Ikusi duen lehen pertsonarengana hurbildu eta:

— Egun on! Galdera bat besterik ez. Erabaki al duzu nori emango diozun botoa datorren igande?

— Ez dut uste inori emango diodanik.

— Ez? Zer dela eta?

— Hara! Ez dut hautagai

bakar bat ere ezagutzen!

Kazetaria orduantxe ohartu da dena entzuten ari den emakume bat duela alboan:

— Eta zuk? Nori emango diozu botoa heldu den igandean?

— Nik? Inori ez!

— Zuk ere ez al dituzu ezagutzen hautagaiak?

— Kontrakoa! Nik denak ondoegi ezagutzen ditut!



Soluzioa

B	E	D	E	S	O	S	O	L	E	R	A	N
B	I	A	R	A	K	E	T	Z	A	R	A	N
J	R	I	A	R	A	K	E	T	Z	A	R	A
H	E	R	R	A	R	A	K	E	T	Z	A	R
J	A	T	A	R	E	T	A	R	E	T	A	R
M	O	X	A	R	E	T	A	R	E	T	A	R
O	I	T	X	A	R	E	T	A	R	E	T	A
E	P	E	T	X	A	R	E	T	A	R	E	T
O	P	E	T	X	A	R	E	T	A	R	E	T

Hayabusa 2: bizi-aztarnen bilatzailea

2014AN Japoniako espazio-agentziak Hayabusa 2 izeneko zunda bidaliko du 1999 JU3 izeneko asteroidera. 2018ko udan asteroidean pausatu ondoren bertako materiala bildu eta 2020an Lurrera itzu liko da.

Saiakera horren bidez, asteroideek Lurreko biziaren sorreran izan duten garrantzia frogatu nahi da, eta horretarako bertako materiala bildu nahi dute. Nola, bada?

Bi erataria egingo da material-bilketa. Batetik, hatz-muturren tamainako balak jaurtiko ditu zundak, eta horiek hango zoruarekin talka egitean askatuko duten materiala bilduko du. Bestetik, distantzia jakin batetik bi kilometroko lehergaia jaurtiko du bi metroko diametroko kraterrekin eginez; ondoren kraterrean sartuko da eta bertako materiala bilduko du. Material hori aurrekoaren desberdina izango da, eguzki-izpietatik babestuta izango baita asteroideko zoru azpian.

Orain urte batzuk antzeko prozesua egin nahi izan zuten Hayabusa zundarekin, baina matxuraz matxura ibili zirenez hauts pixka bat baino ez zuten biltzerik izan. ■



NASA



Ama zelulen eta sistema immunitarioaren arteko zubia

Los Angelesen dagoen Kaliforniako Unibertsitateko ikerlariek hezur-muineko zelulen eta sistema immunitarioko zelulen arteko zubiaren lana egiten duen zelula aurkitu dute. Aurkikuntza horren bidez, leuzemia eta odoleko minbizia bezalako gaixotasunen ulertzea hurbilago dugu.

ttiki.com/43212
(Gaztelaniaz)

Edalontziaren itxurak badu zerikusia edateko abiadurarekin

Bristolgo Unibertsitatean (Erresuma Batua) egindako saiakeran ikusi da diametro konstantea duen edalontzi batetik edan zutenek denbora gehiago behar izan zutela diametro aldakorra duen edalontzitik edan zutenek baino. Bi halako, hain zuzen.

ttiki.com/43213
(Gaztelaniaz)


Adinekoen erorketak prebenitzeko alfonbrak

ADINDUEN %30 edo %40 urtean behin gutxienez erortzen dira etxean. Erorketa horiek izaten dira 65 urtetik gorakoek ospitaleratzeen %50en zergatia.

Manchesterko Unibertsitateko (Erresuma Batua) ikerlari talde batek garatu duen teknologia alfonbretan txertatu daiteke, eta horren bidez adinekoen ibilerak aztertu. Alfonbraren azpian zuntz optiko plastikoak jarritzen dira, eta inork alfonbra zapaltzen duenean zuntzak flexionatu eta pertsonen ibiltzeko era "kartografiatzen" dute. Alfonbraren ertzetan dauden

sentsore elektronikoek kartografiatutakoa bidaltzen dute ordenagailura.

Ordenagailuan zapaltzean sortzen diren irudiak aztertu daitezke, eta aurreikuspen gisa era egokian ibiltzeko aholkuak eman. Pertsona bat erori bada eta erorketa aurretiko urratsak kartografiatu badira, erorketaren arrazoiak ere ondorioztatu daitezke batzuetan, beti ere erorketa ibiltzeko eraren ondorio izan bada. ■



Nanoerresonadoreak eskuko telefonoetan

Telefono eramangarrien kopurua oso handia den gune batean bata besteari eragiten dio eta ondorioz deskargak motelagoak izaten dira, eta soinua txarra goa. Ikerlari talde batek zarata iragazten duen silizeko nanoerresonadorea garatu du ARBeko Purdue Unibertsitatean. Horrek asko hobetzen du telefonotik iristen den soinua.

ttiki.com/43214
(Gaztelaniaz)

Babeslea: **iametza Interaktiboa**

ideia batetik errealitatera



web garapenak



multimedia



aholkularitza



edukiak

iametza
interaktiboa
www.iametza.com
T.943 37 67 16

Memoriaren ganbara

LITXARREROAK liluratzeko asmo-tan ardoa ez beste gauzarik ere egin daiteke. Erreximenta, konfitura, marmelada, jelea, dultzea... Alkohola emateko azukrea duen fruitua, sasoiz kanpoko aldiak ere alaituko dizkigun eran iraunarazteko gai ederra da. Urte osoan fruitu mordoxka izan ohi da, udaberriko lehen mizpira japoniarretatik (*Eriobotrya japonica*) eta marrubietatik (*Fragaria vesca*) abiatu eta negu-neguko berandu-sagararak (*Malus x domestica*), kiwiak (*Actinidia chinensis*), gorostiak (*Ilex aquifolium*), eta abarrera arte, etengabeko katea da. Oker handirik gabe, hortxe-hortxe topatuko dugu urteko 52 asteetan ahorako moduan dagoen fruituren bat. Inork egingo ote du ariketa hori? Horra trabesa botea.

Urte luzean mordoxka badugu ere, udazken parte honetan saldoa fruitu izan ohi da. Zenbait tokitan samaldaka! Ez dut nahikoa toki

denak azaltzeko, baina aurrekoan ardogintzarako egoki bezala aita-tutako hamazortziak, hasteko... Kontserbak jarri zalea dena lanpetuta topatuko duzue sasoi hone-tan, eltze, poto eta kankarta artean; fruituen edabe zoragarrietan sartu ondoren, gozoari neurria hartzeko, behatzari zupaka.

Ez naiz ni bereziki gozozalea, baina tarteka muturraren aurrean jartzen didaten gutizia dastatzeari ezin uko egin. Fruituekin maisulanak egiten dituen jendea bada. Aparteko fruitu kontserba batek, memoriaren ganbarako zokoe-nean ahaztutako usainak, aroak, uneak, garaia, egoerak... Zer ez dezake berritu?

Inoiz dastatu al duzu piko zuri (*Ficus carica*) eta Pelestrin sagarrez egindako konfiturarik? Ni haur-tzarora narama. Piko helduak arbolatik bertatik hartuta jaten ikasi nuen sasoia. Oraindik ez dut

nahikoa piko jan!

Lehengo astean bertan jana dut lagun min batek, urtea joan eta urtea etorri, urtero egiten duen tomate konfitura (*Solanum lycopersicum*). Ahoratu ordurako, bart arratseko ikasle garaia freskatzen dit, nahi gabe ere. Ahosabaitik burura igotzen den zurrunbiloak ederki astintzen dit garai haietako oroi-tzapenak estaltzen dituen hautsa.

Lagun baten amak inoiz ezagu-tu dudun marmelada finena egiten zuen: astalarrosa koxkorrena (*Rosa canina*). Munduko onena dela dio askok. Aspaldi probatu gabeko erreximenta horretaz gogoratze hutsak oroi-tzapen lizunak dakar-zkit. Derrepente deitu behar diot lagun horri. Ea pototxoren bat baduen, edo amaren errezetarik baduen, edo... Oraintxe men-dika astalarrosa dago inguruan. ■



Irakurleak galdezka

Kaixo Jakoba: aurreko batean mendian nebilela, Ataunen, hau ikusi nuen pago batean. Zer izan daiteke? Mila esker.

Eñaut Aizpurua (Donostia)

Interesgarria galdera.

Nere iritziz lipua edo lupua da, hau da, tumore bat. Tumore gogor horiek era askotakoak izan daitezke. Gehienez zerbaitek erasotzen dio zuhaitzari eta tumorea ondorio bat da. Intsektu askok fitoma deituriko tumoretxoak sortzen dituzte eta oso ezagunak dira (ikusi “Lupu jostailua” artikulua, ARGIA 2.220 zenbakia). Enborretako tumore gogor horiek, aldiz, bakterioek eragindakoak direla uste da. Olibondoetako “tuberkulosia” deiturikoa sortzen duenaz ikerketa garrantzitsua egiten ari da Nafarroako Unibertsitate Publikoko irakasle talde bat.

Era horretako tumoretzar batzuk *Agrobacterium tumefaciens* bakterioak sortzen ditu. Itxuraz geneak kutsatzen



ENAUT AIZPURUA

dizkio landareari eta tumorea eragin. Tumoreak, landarearen kokapena dela eta, lurreko energiekin lotzen duenik ere bada.

Bitxikeria gisa, zainak enbor bihurtzen diren lepoaldea bezala, tumore horietako zura bereziki estimatua dela aipatu behar da. Beta ikusgarri kiribilak ditu eta zurgintza lan finenetakarako erabiltzen da, kulatagintzarako, adibidez. ■

Benetako kamikazeak Kublai Khanen aurka

NATIONAL PALACE MUSEUM TAIWAN



Ezkerrean, Kublai Khan mongoliar enperadorea. Eskuinean, enperadorearen flota tifoiairen (edo kamikazearen) erauntsiari aurre egin ezinik.

EKIALDEKO ASIA, 1274. Kublai Khan mongoliar enperadoreak (1215-1294) Txina osoa konkistatuta eta kontrolpean zuen ordurako, eta itsasoaz haratago jauzi egitea erabaki zuen, Japonia ere mendean hartzea, alegia.

Kublai Khanek flota indartsua eramane zuen Japoniako kostaldetik: ia 1.000 ontzi eta 40.000 soldadu baino gehiago. Lehorreko lehen guduetan indar mongoliarrak izan ziren garaiak, garbi. Baina bat-batean, tifo izugarri batek jo zuen kostaldea. Erauntsiak mongoliarren ontzien herena hondoratu zuen, eta, horrenbestez, Khan Handiak amore eman zuen Japoniaren konkistan.

Ez luzaroan, ordea. Zazpi urte geroago enperadoreak 1.170 gerraontziko flota indartsua berrosatu zuen eta, bigarrenetaz, japoniar uharteak hartzeari ekin zion. Emaizta berbera izan zen: beste tifo batek atzera egitera behartu zituen enperadorearen osteak. Hirugarren ahaleginik ez zuten egin mongoliarrek.

Azken urteetan garai hartako hainbat krosko aurkitu dituzte Japoniako kostaldean eta, zantzu guztien arabera, Kublai Khanen flotakoak dira. Ontzi gehienak gabarra modukoak dira; lehorrekoak izanik, mongoliarrak prestatuago zeuden barnealdeko lurralde konkistatzeko, eta haien ontziak egokiagoak ziren ibaie-tan nabigatzeko itsaso zabalean ibil-

tzeko baino. Gainera, mongoliarrak granada moduko lehegailuak erabiltzen hasi ziren, baina esperientziarik ezaren ondorioz, arma berriak mende baino kalte gehiago egin zuten hasierari. Beraz, tifoiekin gain, ontzi desegokiak eta kontrol gabeko lehegailuak ere eragina izan zuten mongoliarren porrotean.

Baina japoniarrek uste zuten laguntza zerutik etorri zitzaiela, *kamikaze* (jainkoek) bidali zituztela tifoia, eta, hala, fenomeno atmosferiko haiei *jainkoen haize* esan zieten, edo, haien hizkuntzan esanda, *kamikaze*.

Bigarren Mundu Gerran, *kamikaze* hitza Japoniar Armada Inperialeko unitate berezi bateko pilotuen eraso suizidak izendatzeko (oker) erabiltzen hasi ziren AEBetako itzultzaileak. Mendebaldeko literaturak, prentsak eta zinemak bere lana bete zuen eta, hala, *kamikaze* hitzaren definizio hau topatu dugu gaur egungo hiztegi batean: “Bigarren Mundu Gerran, japoniarrek AEBetako itsasontzien kontra leherrarazten zuten lehegailuz betetako hegazkina; delako hegazkineko pilotu boluntarioa. Ekintza batean bere bizia arriskuan jartzen duen pertsona; ekintza arriskutsuetan zuhurtzeari gabe jokatzeko duen pertsona”. Kublai Khanen arrastorik ez. ■




Arrastoak

Eraso baten argazkirik zaharrena

BIRMANIAKO Hukawng bailaran duela 100 milioi urteko eraso baten irudia aurkitu berri dute, anbar zati batean harrapatuta. Anbarak xehetasun osoz erakusten du armiarmak sarean intsektu bat harrapatuta zuela. Sarea bera ikus daiteke anbar zatian, baita biktima, ziurrenik, liztor arra zela ere.

Irudiko intsektua kondentatuta zegoen. Dagoeneko sarean harrapatuta zegoen, eta armiarmak irentsiko zuen edo konifera baten erretsinak estalita hilko zen. Bigarrena gertatu zen, eta armiarma ere kondentatu zuen horrek. Biek historiaurreko argazki modukoa utzi digute.

Horrez gain, anbar zati berean beste armiarma bat ere badago, argazkian ikusten ez den arren. Oregoneko Unibertsitateko (AEB) zoologia irakasle George Poinarrek arabera, aurkitutako “artropodoen arteko jokabide sozialaren, izaki bizidunen erlazio funtzioaren froga zaharrenetakoa” da. ■



OREGON STATE UNIVERSITY

Birmanian aurkitutako anbar zatiak duela 100 milioi urteko armiarma eta liztorra gorde ditu.

Soluzioak zure esku



EUSKO LEGEBILTZARRERAKO HAUTESKUN
2012
ELECCIONES AL PARLAMENTO VASCO



amaten diot aurkeztutako
-zerrenda honi:
a la candidatura presentada

AL HERRIA BILDU
(eh bildu)

BOZKATU
ehbildu

EUSKO LEGEBILTZARRERAKO HAUTESKUNDEAK

Independentzia hotsak inoiz baino ozenago kanpainan

Urriaren 21eko hauteskunde gauean bi emaitzetan jarri beharko litzateke begirada: batetik, PSEren eta PPren hondoratzea norainokoa izango ote den, eta bestetik EH Bilduk nolako estu hartuko duen EAJ. Hurrengo legegintzaldiko hitzarmenak eta politikak bi datu horien arabera izango dira.

| URKO APAOLAZA AVILA |



ARGAZKI PRESS / JON URBE

Laura Mintegiren (EH Bildu) erronka nagusietakoa da orain arte koalizio soberanistara hurbildu ez den jendea konbentzitzea.

INORK 2009AN ETORKIZUNA zelatazko antiojoak asmatu izan balitu eta 2012an bista jarri, ikusitakoa ezin kalibraturik ibiliko litzateke. Orduan ertzainek tabernak arakatzan zituzten kartelen bila, orain EH Bilduk Alderdi Popularrarekin eztabaidatzen du telebistako platon. Orduan “ekonomia berrakibatze” makro-inbertsioez hitz egiten zen hautes-programetan, orain

alderdiek Eusko Jaurlaritzaren zakuan egongo den zuloaz espekulatzen dute. Orduan ETAk PSEren Lazkaoko egoitza lehertu zuen kanpaina betean, independentismo hitzak terrorismoaren tokia hartu du orain zenbait politikariren ahotan. Ez dira lau urte igaro, eta hala ere errealtatea irauli zaigu.

ETAren amaiera eta krisi ekonomikoa. Bi osagai horiek sortzen

duten koktel politikoa zein den badakigu nolabait, 2011ko hauteskundeetan ikusi dugu. Baina osagai berri batek bizitu du edabea: Kataluniako ufada soberanistak. Zein ote da emaitza?

75 eserleku daude jokoan, 25 lurralde bakoitzetik. 1.775.336 herritarrek eman dezakete bozka eta horietatik 43.000k eskatu dute posta bidez egitea. Azkeneko hau-

teskundeetan baino zerrenda gehiago aurkeztu dira oraingoan –45 zerrenda hiru lurraldeetan–, horietatik lau dira nagusiak: EAJ, EH Bildu, PSE eta PP, eta Ezker Anitzak eta UpyDk ere irabaz dezakete gazta zatiren bat.

Abstentzioa da gakoa

Inkestek tendentziak erakusteko balio dute batez ere, eta garbi ikusten da hautesleek alderdi espainiarrak zigortuko dituztela: aurreikuspen optimistenek, Eusko Jaurlaritzako Soziometroak kasu, 16 eserleku egokitzten dizkiote PSEri, eta kasurik okerrenean –Gara eta Naiz– entzat Aztikerrek egindako zundaketetan– 12 eserleku lortuko lituzke, orain duen ordezkariaren erdia baino gutxiago. PPK ere nabarmen egingo luke behe-
ra, egungo 13 eserlekutik 10-9 eserleku izatera igaroko dela diote inkesta gehienek.

Alde batera utzita inkesten benetako interes eta helburuak, pentsatzekoa da hango eta hemen gobernuetan erabakitako murrizketa neurriek zuzenean eragingo dietela bi alderdion. PP eta PSE noraino hondoratu-
ko diren, hori izango da hauteskunde ondorengo hitzarmenei begira giltzarri nagusietakoa.

Hauteskunde hauetako beste enigma handi bat da EH Bilduren eta EAJren arteko lehia nola geratuko den. EH Bilduri 22-24 eserleku ematen dizkiete inkestek eta EAJri 24 eta 28 artean. Laura Mintegik zail dauka irabazten, inkestei kasu eginez bederen, eta Urkullu izango da hurrengo lehendakaria. Baldin eta ez bada 2011ko foru eta udal hauteskunde gisako ezberdintasunik izaten hasierako inkesten eta egiazko emaitzen artean.

Datu guztiek aditzera ematen dute gehiengo abertzale zabala izango dela Eusko Legebiltzarrean aspaldiko partez. Abertzaleek 50 eserleku ere lor ditzakete, arkuaren bi heren. Horrelako


emaitzak soilik 1986ko hauteskundeetan izan zituzten; orduan botoen %67a lortu zuten. Geroztik balantza pixkanaka berdinduz joan da eta 2005eko eta 2009ko hauteskundeetan –boto baliogabeak ere kontuan hartuta– alderdi espainiarrek goia jo zuten. Joera horri buelta ematera letozke urriaren 21eko bozak.

Euskadi Irratian Asier Etxenike soziologoa, eta Asier Blas eta Jonatan Moreno politologoak bat zetozen: abstentzioaren datua izango da gakoa. Abstentzio maila altuena 1994an izan zen, %40aren gainetik, eta baxuena 2001ean, Mayor Oreja eta Ibarretxeren arteko deman herritarren %21 baino ez zen abstenitu. Parte-hartze datuek normalean eragin handiagoa izan dute EAJren eta PSEren

**Parte-hartze datuek
normalean eragin
handiagoa izan dute EAJ
eta PSEren emaitzetan.
Oraingoan gainera, PP
gehitu zaie abstentzioa
uxatzeko ahaleginari
Si tú no vas, ellos ganan
lelo adierazgarriarekin**

emaitzetan. Oraingoan gainera, PP gehitu zaie abstentzioa uxatzeko ahaleginari, *Si tú no vas, ellos ganan* lelo adierazgarriarekin. PSEk eta PPK arrisku bizia dute normalean eurei botoa eman dieten herritarrek oraingoan paso egiteko.

Horrek esplikatzen du, esaterako, zergatik ari diren hain gogor independentismoaren gaia haizatzen, “beldurraren botoa” deiturikoa sortu nahian: “Euren doktrinamenduarekin bat egiten ez duena bota egingo dute herri honetatik” (Patxi Lopez); “Estatuarekin egonkortasuna dago, independentziarekin amildegia” (Antonio Basagoiti). Molde horretan astindu du EAEko kanpaina Kataluniako Diadaren lurrikarak. Gai horrekin Urkulluk daraman dis-



*...ametsetan
bezala*

**ATXASPI
HOTELA**

Bittiria, 24
Lesaka (Nafarroa)
T.: 948 637 536
hotela@atxaspi.com
www.atxaspi.com



ARGAZKI PRESS / RAUL BOGAJO



ARGAZKI PRESS / JUAN CARLOS RUIZ



ARGAZKI PRESS / JON HERNÁEZ



Ajuria Eneko ostalari nagusi izateko aukera gehien du Urkulluk; gero eta gehiago dira horretarako bakarkako bidea aukeratuko duela diotenak.

kurtso moderatua ulergarria da, badaki PSEren eta PPren hautesleak erakar ditzakeela, EAJren “kudeaketa onaren” banderarekin. Era berean, aparatu jeltzale guztia martxan jarri du EBBko buruak, euren aldekoa izan daitekeen bozka bakar bat ere etxean geratu ez dadin, hor kokatu behar da BEC bete nahi izatea.

Barakaldoko pabilioitzarra bi indar nagusien arteko lehiaren neurgailu bilakatu da. EH Bilduk ere hantxe egin du ekitaldi nagusia eta erraz gainditu du frogia, ezker abertzaleak duen mobilizazio gaitasuna berriz ere agerian utziz. Laura Mintegiren erronka nagusia da orain arte koalizio soberanistara hurbildu ez den jendea konbentzitzea. Horretarako saiatzzen ari da “sistemako” alderdiengatik bereizten, krisiaren ondorioz politikariekin haserre dauden ezkerreko herritarrei mezuak igorritik: “Ez gatoz politikaren eremuan integratzera, eremua aldatzera baizik”, zioen astekari honetan berrikitan.

EH Bilduk ozen eta garbi azaldu du burujabetzarako bidea. Arnaldo Otegiaren ahotan entzun genuen BECen: “Autonomiaren zikloa amaitu da” zioen Logroño kartzelatik ezker abertzaleko kideak, eta Quebec, Eskozia edo Katalunia jartzzen zituen adibidetzat, “independentzia zuzenean” aldarrikatuz. EH Bilduk ez du bide-orria gehiago zehaztu, ez da lurraldetasunaren lohietan sartu, baina gainerako indarrei erabakitze eskubidearen inguruko akordio zabalerako pro-

posamena egin die. Ikusteko dago hortik koskadarik egiten dion EAJri. Alderdi jeltzaleak 40.000 bozka eta 3,3 puntuko aldea aterazio Amairri Espainiako hauteskundeetan.

Lurralde bakoitzetik 25 eserleku aukeratzeak eragin itzela du azken emaitzan, horregatik da estrategikoa Araba popularrentzat, eta hein batean horregatik ari da EAJ Gipuzkoan Bilduk daraman politika erasotzen, koalizioak hortxe lor baitetzake eserleku gehien. EH Bilduk Gipuzkoan aterako dituen emaitzak azterketa baten gisan irudikatu nahi

Sabin Etxean kalkulagailuarekin egingo den lehen ariketetako bat izango da EAJ eta PPren arteko gehiketa, 38 zenbakia gaindituko duen ala ez jakiteko

dituzte jeltzaleek: “Gipuzkoarrek aukera paregabea dute, Bilduri seinale bat helarazteko aldatu dadin” (Joseba Egibar). Estrategia horrek badu arrisku bat, EH Bilduk azterketa gaindituz gero, EAJ Batzar Nagusietan egiten ari den oposizio bortitzak indarra galduko luke nolabait.

Nola osatu Gobernua?

Emaitzak direna direla, inork ez du gehiengo nagusirik lortuko, eta paktuak beharrezkoak izango ditu Eusko Jaurlaritzan agintzen jartzen denak. Ajuria Eneko ostalari berria

izateko aukera gehien dituen Urkulluk, Gobernua osatuko al du beste alderdiren batekin? Edo bakarkako bidetara ekingo dio? Ez da suizidio bat, Ibarretxek 2001ean eta 2005ean EA eta EBrekin koalizioan gobernatu zuen, baina hala ere gutxiengoan zen. Gero eta gehiago dira aukera horren alde egingo duela uste dutenak.

Hautagai jeltzalearekin ARGIAK egindako elkarrizketan, honek garbi zioen gobernagarritasuna lortzeko alderdi guztiei irekita daudela. EH Bilduren emaitzen baitan, EAJ jakitun da jendarteko sektore handi batek gaizki ikusiko lukeela abertzaleek Legebiltzarrean lortutako nagusitasuna ez profitatzea, bakegintzaren, euskararen erabileraren edota burujabetzaren arloetan aurrera egiteko.

Baina ekonomiaren arloari begira bestela dira gauzak. EAJ PPekin akordioetara iritsi izan da lehenago ere, Kutxabanken kasuan erakutsi duen moduan. Bestetik, komeni zaio Madrilen agintzen duen PPekin nolabaiteko harremana izatea: “Norekin landu beharko dugu bakegintza eta bizkitetza?”, dio Urkulluk. Seguruenik hauteskunde gauean Sabin Etxean kalkulagailuarekin egingo den lehen ariketetako bat EAJ eta PPren arteko gehiketa izango da, 38 zenbakia gaindituko duen ala ez jakiteko. ■



GASTU MILITARRA ESPAINIAN

Urtean 8.000 milioi euro aurreztu zitezkeen

Espainiako Estatuan gastu militarra murriztea bide egokia izan daiteke krisia arintzeko eta, beraz, baita defizit publikoa murrizteko ere. Neurri horrek, gainera, gaur egungo krisitik ateratzen hasteko bultzada emango lioke Espainiako Estatuari, Kataluniako Delás Bakerako Ikasketen Zentroak landutako txostenaren arabera.

| DANIEL UDALAITZ |



OSCAR IN THE MIDDLE / FLICKR

Espainiaren gerrarako makina askok Madrilgo asfalto bano ez dute ukitzen, egiten direnerako zaharkituta baitaude.

“GASTU MILITARRAK MURRIZTEKO zenbait neurri: indar armatuetako kideak gutxitzea, Armen Programa Berezi handien kontratuak bertan behera uztea, I+G militarra alde batera uztea, eta Espainiak atzerrian dituen indar armatuak murriztea.

Horien bidez, urtean 7.000 eta 8.000 milioi euro artean aurrez daitezke; ez da kopuru makala, ogasun publikoaren zorpetzea eta defizit

publikoa arintzeko. Gastu militarra murriztea urrats garrantzitsua litza-teke Espainiako ekonomia egungo krisitik ateratzen has dadin”. Horra hor, argi eta aratz, Pere Ortégak, Delás Bakerako Ikasketen Zentroko (Justicia I Pau) kideak berriki egindako txostenaren mamia. *Gastu militarra Espainian, 2012. Krisia murrizteko aukera* du izenburu Ortégaren lanak.

Espainiako Gobernuak entzungor egiten du

Espainiako Gobernuak, ordea, entzungor egiten die arrazoibide horiei. Hala, txosten hau argitara eman eta ia aldi berean, irailaren 19an, Espainiako Kongresuak lege-dekretu bati bide eman zion Defentsa Ministerioari ia 1.800 milioi euroko ezohiko kreditua emateko, zertarako eta armen industrian

Defentsa Ministerioaren zifra engainagarriak

ESPAINIAKO Defentsa Ministerioa da murrizketa gutxien izan duen ministerioetako bat, Kataluniako Delás Bakerako Ikasketen Zentroak landutako txostenaren arabera. Espainiako gastu militar erreala, krisi latza pairatzen ari garen garaiotan, %6,3 baino ez da murriztu. BPG-aren aldean %1,6koa da gastu militarra, Defentsa Ministerioak aitortzen duena halako bi; beste modu batera esanda, egunean 46,6 milioi eurokoa da gastua eta urtean 366 eurokoa biztanle bakoitzeko. 2012rako aurrekontu militarra 15.834 milioi eurokoa da.

Alabaina, gastu militarren zifrak engainagarriak dira beti; izan ere, alde izugarria izaten da hasierako aurrekontuetan zehaztutako gastu militarretik ekitaldiaren amaieran likidatutako gastu erreale-
ra. Urtean zehar baliabideak gehitzen dira behar beste diru bideratu ez den partidetara. Kontingentzia Funtsetatik datoz baliabide horiek; hain zuzen, zorro horretatik ateratzen dute dirua atzerriko misio militarrek ordaintzeko. Hala, esaterako, 2011n, hasiera batean 14 milioi euroko aurrekontua bideratu zuten atzerriko misioetarako, baina azkenean 861 milioi gastatu zituzten.

Eta horixe bera gertatu zen armetan egindako inbertsio gehienekin ere, hasieran esleitutakoa baino 582 milioi gehiago xahutu baitzuten inbertsio horietan. Eta hori ekitaldiaren amaieran baino ezin da jakin, likidazioa aurkezten denean, hain zuzen. Hala, 2011ko Defentsako aurrekontua onartzean, gastu militarra 594 milioi euro murriztuko zutela iragarri zuen Gobernuak, baina orain jakin da, behin-behineko likidazioaren argitan (oraindik ez baita behin betikoa), aurreikusitakoa baino 1.164 milioi euro gehiago xahutu zituztela; hau da, %6,75 gehiago.

“kitoan jartzeko”. PPK eta UPNko diputatu nafarrak bozkatu zuten erabaki horren alde. Funtz horien %65 Eurofighter programan ordaintzeko dauden fakturretara bideratuko da. Espainiak, Italiak, Alemaniak eta Erresuma Batuak hartzen dute parte programan. Beste 242 milioi General Dynamics Santa Barbara etxeko Leopard borrokarako gurdiak erosteko bideratuko ditu Espainiako Gobernuak, 187 milioi Navania etxeko itsas armadako ontzietarako eta beste 76 milioi Eurocopter fabrikako Tigre helikopteroetarako. Gainera, Espainiako Gobernuak 31.000 milioi euro ordaindu behar ditu 2025. urtera arte, programa horien kontratuengatik.

Ez baita ahuntzaren gaurdiko eztula, ekar dezagun gogora Defentsako aurreko estatu-idazkariak, Constantino Mendezek, kargua uzterakoan esan zuena: “Ez genituzkeen hartu behar erabiliko ez ditugun sistemak, gaur egun ez dauden borroka egoerei aurre egiteko eta ez orduan eta ez orain ez daukagun diruarekin”. Alegia, arma horiek ez dutela ezertarako balio onartzen zuen Mendezek; izan ere, Eurofighter hegazkinak, Tigre helikopteroak, Leopard eta Pizarro blindatuak eta gerraontzi gehien-gehienak ez dira joan Espainiako indar armatuek esku hartu duten lekuetara, besteak beste Afganistan, Libano edo Libiara.

Nola murriztu defizita eta zorpetzea

Nabarmena da: defizita eta zor publikoa murriztu ahala kontu publikoei arnasa eman nahi bazaie, gastu militarra murriztea da horretarako irtenbideetako bat. Alde horretatik, aipatutako txostenak galdera zuzena egiten du: beharrezkoa ote da 130.000 kideko indar armatuei eustea? Europako zenbait herrialdetan, hala nola Alemaniak eta Italian, badira egitasmoak indar armatuak murrizteko. Zergatik ez dio Espainiak bide horri jarraitzen? “Zertarako behar

Txostenak nabarmentzen duen beste alderdietako bat da armen kontratu handiak (PEAS) bertan behera utzi beharko lirатеkeela; izan ere, kontratu horiek (Eurofighter, A400M, Tigre helikopteroak, Leopard eta Pizarro blindatuak, urpeko ontziak, fragatak, gerra-ontziak, eta abar.) 2025. urtera arte luzatzen dira. Neurri horrek sortuko lituzkeen eragozpenak eta industria militarrean eragindako kalteak leuntze aldera, azterlan handi bat egin beharko litzateke industria militarra eraldatzeko eta ondasun zibilen ekoizpen arlora bideratzeko. Gainera, PEAS delakoak bertan behera uzteko neurria abiaraziko balitz, alde batera geratuko lirатеke I+G militarrean bideratutako laguntzak ere, eta beste mila milioi euro aurreztu ahal izango lirатеke urtero, dirutza hori ematen baitzaie enpresa militarrei beren armak

Defentsa Ministerioa murrizketa gutxien izan duenetako bat da; krisi latza pairatzen ari garen garaiotan, %6,3 baino ez da murriztu gastu militarra

du Espainiak 130.000 soldaduko armada? Erdiarekin edo heren batekin ez ote luke nahikoa?”. Txostenak ez du langabe gehiago sortu nahi; aitzitik, beste azterlan bat gehitzen du zenbait doikuntza egiteko eta, hala, agintari militar ugari erreserbara igarotzeko eta soldaduak eginkizun publikoetan birkokatze.

garatzeko.

Azkenik, gastu militarra murrizteko beste aukeretako bat da Espainiako tropak atzeritik erretiratzea. Neurri horren bidez 860 milioi euro aurrezteko modua egin-go luke Gobernuak, kopuru hori kostatzen baita urtean tropak hara edo hona bidaltzea. ■



Getxoko arma negoziantea

ESPAINIAKO Defentsa ministroa, Pedro de Morenes, Getxon jaio zen orain 64 urte. Ez zaituztet aspertuko bere lorpen akademiko eta bestelako datu biografi-koekin, Wikipedian daude eta. Goazen zuzenean 1996ra: Alderdi Popularrak Espainiako hauteskundeak irabazi ostean, Defentsako Estatu Idazkari kargua hartu zuen Morenesek, eta hantxe egin zuen legegintzaldi osoa. Aznarren bigarren agintaldian, berriz, Segurtasun Estatu Idazkaria izan zen besteak beste.



Pedro Morenes, Espainiako
Defentsa ministroa.

Kargu publiko horietan jardun aurretik sektore pribatuan aritutakoa zen, eta horra itzuli zen PPK boterea galdutakoan, 2004an. Urtebete geroago Instalaza S.A., armagintzaren eremuko konpainian sartu zen kontseilari (sosik kobratu gabe bere hitzetan). Eta 2010ean Espainiako sekzioko zuzendari nagusi izendatu zuten MBDAn, misilak fabrikatzen dituen transnazional europar batean.

Baina itzul gaitzezen Instalazara. 2008ra arte, enpresa hori izan zen Espainiako luku-bonba ekoizle nagusia. Urte hartan, arma mota hori legez kanpo utzi zuen Dublingo Hitzarmenak, eta Madrilgo Gobernuak iragarri zuen ez zela halako bonbarik egongo Espainian 2009ko ekainetik aurrera. Instalazak salaketa jarri zuen Gobernuaren aurka erabaki horregatik, eta 40 milioi euroko kalte-ordaina eskatu zuen.

2011n, PP boterera itzultzeaz batera, Defentsa ministro izendatu zuten Pedro Morenes, eta 2012ko udaberrian, epaitegiek Instalazari arrazoi eman eta Estatuak 40 milioi euroak ordaindu behar zizkiola esan zuten. Momentuz, Gobernuak helegitea dauka jarrita epai horren aurka. Aurtengo urtarrian, Morenesek Instalazarekin lotura eduki zuela jakin zenean, ministroak Diputatuen Kongresuan adierazi zuen 2007an eten zuela lotura hori; luku-bonben aferra gertatu baino lehenago, beraz. Aldiz, hainbat hedabidek frogatu zuten Morenes gezurretan aritu zela –PPren Gobernuak “huts” bat izan zela argudiatu bazuen ere–, Instalazako kontseilari jardun baitzuen 2009ra arte. Izan ere, jardun horren etetea 2011ko irailean jakinarazi zen ofizialki Zaragozako Merkataritza Erregistroan. Hau da, hauteskundeak baino aste bi lehenago. ■

Unai Brea

AQUARIUM



Carlos Blasco de Imaz Plaza, 1
20003 Donostia (Gipuzkoa)

Tel: 943 44 00 99

aquariumss@aquariumss.com
www.aquariumss.com



Lau hizkuntza ala hamalau, ez dio axola

EHUko Filosofia eta Hezkuntza Zientzien Fakultateak antolatu zituen joan den astean *Hizkuntza eskubideak hizkuntza gutxituentzat eta hizkuntza politikak European jardunaldiak*. Margaret Bullen antropologoari eskola akademikoa baino, hizkuntzekiko izan dituen eta dituen bizipenak kontatzeko eskatu zioten.

| ONINTZA IRURETA AZKUNE |

HITZA bizitzara egokitu behar dela dio Margaret Bullenek, ez dago hizkuntza bakarra, ez dago egia borbilik. Tokiaren, egoeraren, hartzailearen arabera egokitu beharko da hizkuntza.

Badaki zertaz ari den; bidaiak, luzeak eta motzak, ugari egin ditu eta lekuan-lekuan belarria jarri eta sarritan mihia ere hango hizkuntzan askatu du. Hizkuntza aniztasunaren edertasuna aldarrikatzen du, eta fakultateko areto nagusian hitzaldia hiru hizkuntzetan, euskaraz, gaztelaniaz eta ingelesez —frantsesez ere bai esaldiren bat— egin zuen, dakizkien lau hizkuntzetatik hirutan. Garbi utzi nahi izan zuen ez zuela erabaki hitzaldia hiru hizkuntzetan ematea harrotasunagatik, baizik eta errealitate bat agertzeko asmoz eta esperimentatzeko.

Hitzaldia hasterako argitu zigun, dakizkien lau hizkuntzetatik bat bera ere ez duela akatsik gabea, hanka-sartzeak barkatuko genizkiola pentsatu nahi zuela. Jatorri ingelesko antropologoak hizkuntza komunikazio tresnatzat du, helburua solaskidearekin harremanetan jartzea da, eta beraz, ez du ulertzen zergatik hizkuntza kopurua edo hizkuntza beraren bariazioak baztertzera jo behar den. Agian, elkar ez ulertzeko beldurrak eta deserosotasunak eraginda aukerak murriz-

tera jotzen dugula dio. Hizkuntza batean hitz egiteko jario paregabea eta gaitasun erabatekoa beharrezkoa ez izatea aldarrikatu zuen.

Apostoluak hamalau ziren, eta zer?

Lau hizkuntza ala hamalau, ez dio axola, zioen Bullenek. Arantzazuko santutegian Oteizak paratutako hamalau apostoluak ekarri zituen gogora. Eskultore hari galdetu zioten zergatik hamalau, apostoluak hamabi baziren. Apostolu denak bat bera ziren, Bullenentzat hizkuntzak bezala. Hizkuntzak ezin dira zenbatu, ez dago ingeles bakarra, ez dago euskara bakarra, eta ez dago gaztelania bakarra. Bullenek Ingalaterrako hegoaldean igaro zuen haurtzaroa eta batxilerra egiteko iparraldera jo zuen. Hasieran, bizilagunei eta ikaskideei ulertzeko ere zailtasunak zituen. Denek egiten zuten ingelesez, baina hitzen eta esaldien doinua, hitzak beraiek, ez ziren berdinak. Eskola publikoan ikasia Bullen, hark eta lagunek /ia/ tarrak deitzen zieten eskola pribatu-koei, /ies/ ahoskatu beharrean —haiek egiten zuten bezala— /ia/ ahoskatzen zutelako.

Alegia, hizkuntza bereko aldaerez hara-

go, prestigio kontuak izan zituen hizpide. Esate baterako, Ingalaterra iparraldeko hizkerak dauka prestigioa eta ez hegoaldekoak. “Doinu zatarrak daukate Birminghamekoak” moduko esaldiek adierazten dute nola hizkuntza aldaera batzuk bes-teen gainetik baloratzen diren; botere harremanen ondorio, azken finean.

Irakasle gogotsuak izatearen abantaila

“Hizkuntza maite dut, bai nirea baita besteena ere”, hala dio Bullenek. Eskola garaitik du hizkuntzekiko zaletasuna eta haren ustez badaude gutxienez hiru arrazoi hizkuntzak ikastera bultzatu zutenak. Lehenik, irakasle gogotsuak izan zituen; bigarrenik, zientzia gaietan ikasle txarra zen; eta hirugarrenik, berriak ziren.

Berriak izango zen Bullen, berak hala esaten badu, eta bidaiaria ere bai. 17 urterekin hasi zen batetik bestera, ikasketa eta opor

“Bikotean erlijioa partekatzea ohikoa da, eta zergatik ez hizkuntza partekatzea?”

Margaret Bullen

kontuak medio Frantzian, Suitzako Alpeetan, Espainiako Guadalajaran eta Peruko Arequipan izan da. Latinoamerikaz maitemindu zen, besteak beste, hango musika, poesia, antzerkia, eleberria, paisaia... xurgatzeko aukera izan zuelako. Ikasketen bidez ezagutu zituen García Márquezen errealismo magikoa eta Vargas Llosaren [politikan hasi aurreko Vargas Llosa] eleberriak.

Tesia Arequipan egitea erabaki zuen, Peru hegoaldean dagoen estatuko bigarren hiririk populatuenean. Mendialdetik hirira joandako aimara eta ketxua komunitateak zituen aztergai, haiek bizitza berrira nola moldatu ziren ikertu nahi zuen, besteak beste haien hizkuntza eta kultura nola bizi zituzten jakin. Estigmak jotako herritarrak aurkitu zituen, azal ilunak lotsatutakoak, hizkuntza-aren transmisioa etendakoak. Liverpoolera tesia idaztera joan aurretik ketxua pixka bat ikasteko aukera izan zuen.

Hizkuntza ez dugu partekatuko?

27 urterekin Euskal Herrian lur hartu zuen eta horixe pentsatu zuen, “bikotean erlijioa partekatzea ohikoa da, eta hizkuntza partekatzea ez?”. Eta euskararen

bidaia hasi zuen: AEK, HABE, Kilometroak, Korrika, Euskadi Irratia etengabe, *Berria*, ARGIA, eta EGArekiko esperientzia garrantza: “Azterketa egin eta ezgai!, berriz egin eta ezgai! eta halako batean gai!”. Indarrak erruz jarri zituen euskara ikasteko eta erabiltzeko. Bizitokian, Irunen, Arequipan

dakitenean hasten dira ingelesarekin eta emaitza hobeak dituzte. Badakit nik esatea erraza dela, ingeles hitzuna naizelako eta nire semeek ere badakitelako, baina ingelesean bikaintasuna lortu behar da? Euskararen kaltetan bada ez” ■

MADDI SOROA / A. P.



ketxua ikastea bezain zaila zela-eta, EHU lan-kideen artean aurkitu zuen euskararen mikroklimara gerturatu zen.

Pena ematen dio jendeak euskararen aldean ingelesa lehenestea. “Gure herrian [Ingalaterran] ez dugu hizkuntzarik ikasten, ez dugu behar, ez han ezta munduan zehar ibiltzeko ere. Zuek ez duzue hemen-dik joan nahi. Orduan zergatik ez lehenengo euskara eta gero besteak? Ulertzen dut zuen hizkuntza minorizatua izanik, hizkuntza boteretsuak ikasi nahi izatea, baina ingurukoekin bizitzeko, ingelesaren aldean, ez al da hobe gaztelania eta frantsesa ikastea, adibidez?”. Gaia irakaskuntzara eraman-da zalantza handiak dauzka: “Ez nau konbentzitu lau urterekin ingelesa ikasten hasteak. Urte luzez ikasi eta ez dute maila ona lortzen. Suedian suedieraz ondo hitz egiten eta idazten



Foie plantxan

Bartolo
taberna - jatetxea

Euskal sukaldaritzan eta pintxotan
aukera zabala

Fermin Calbetón, 38
Donostia - San Sebastián

© 943 420 279
www.casabartoloetxea.com

EPAI HISTORIKOA ERRESUMA BATUAN

Kenyarrek irabazi dute Mau Mauen tortura kasua

Britainiar kolonialismoaren amaieretan, milaka pertsona atxilotu eta torturatu zituzten Kenyan, Mau Mau matxinadak iraun zuen bitartean (1952-1960). Haietako hiruk Britainia Handiko Auzitegi Gorenera eraman dute kasua, eta irabazi berri dute.

| LANDER ARBELAITZ |

HIRU KENYARREK Britainia Handiko Gobernuaren aurkako bataila legal historikoa irabazi dute joan den urriaren 5ean. Mau Mau Matxinadak iraun bitartean torturatu egin zituztela ebatzi du Britainia Handiko Auzitegi Gorenak, eta orain kalte-ordainak eskatuko dizkiote Gobernuari.

Britainia Handiko Gobernuak bere defentsa bi ideia nagusitan oinarritu du: batetik, denbora gehiegi igaro dela epaiketa justua egiteko; eta bestetik, Mau Mauek Kenyako Gobernuaren aurkako salaketa jarri behar zutela, eta ez Britainia Handikoaren aurka. Herrialdeko Auzitegi Gorenak atzera bota zituen argudioak eta kasuak aurrera egin du.

Gobernuko abokatuak onartu du salaketa jarri duten hiru herritarrak torturatu zituztela autoritate kolonialek. "Esan ezineko ekintza bortitza" sufritu zituztela adierazi zuen beren abokatuak, besteren artean, zikiratzea, kolpeak eta sexu erasoak.

Kasu honek aurrera eginda, baliteke beste 2.000 kenyarrek Britainia Handiko Gobernuaren aurka egitea. Dirudienek, Mau Mau matxinadak iraun zuen zazpi urteetan atxilotutako 70.000 pertsonatik kopuru horrek dirau bizirik.

The Guardian egunkari ingelesaren arabera, britainiar kolonialismoan tratatu txarrak jasan zituzten beste komunitate batzuk antzeko salake-



Jane Muthoni Mara, Wambugu Wa Nyingi eta Paulo Muoka Nzili beterranoak Nairobi epaia jakin berritan.

tak jartzea pentsatzen ari dira. Zipren britainiar kolonialismoaren aurka, eta autodeterminazioaren eta Greziarekin batzearen alde borroka armatua egin zuten Eoka mugimenduko kideak Mau Mauen kasua gertutik jarraitzen ari dira, aipatu egunkariaren arabera.

Britainiar kolonialismoan tratatu txarrak jasan zituzten beste komunitate batzuk antzeko salaketak jartzea pentsatzen ari dira

Joan den urriaren 5eko epaia, hiru urteko bataila legalaren emaitza da. Salaketa jarri duten hiru kenyarrak, denak 70 eta 80 urte artekoak dira: Paulo Nzili, Wambugu Wa Nyingi eta Jane Muthoni Mara. Nzilik dio bahu- tui egin zutela eta Mau Mauen matxi-

THE GUARDIAN / B. CURTIS

nadan parte hartzera behartu zutela sei hilabetez. Nyingik eta Marak diote ez zutela sekula parte hartu mugimenduan.

2011ko apirilean egin- dako adierazpenetan, epai- tegian Nzilik azaldu zuen atxilotuta zegoen bitartean zikiratu egin zutela ofizial zuriek; Nyingik larri kolpa- tu zutela 11 herritar hil zituzten gertakari batean; eta Marak bortxatu egin zutela militar britainiarrek. Laugarren herritar bat ere

borroka legal horretan izan da hasie- ratik, Ndiku Mutwiwa Mutua, baina 2011ko uztailean hil zen.

Hirukoteak nahi du Erresuma Batuko Gobernuak barkamena eska dezala, eta kolonia garaiko torturaren biktimei kalte-ordain ekonomikoak emateko neurriak hartzea.

Iaz epaileak adierazi zuen "paper gutxi batzuk ikusita agerikoa da Larrialdi Egoe- ran atxilotuak sistematikoki torturatzen zirela". Martyn Day, kenyar beterranoen abo- katuetako batek epaiaren ondoren poza adierazi zuen: "Epaia historikoa da hau, munduari buelta emango dio

eta urte batzuetarako zeresana emango du. Espero dugu gure Gobernuak neurri oho- ragarriak hartuko dituela eta egiten zaizkion eskaerak zuzen eran- tzungo dituela". ■



Arabako Mintza Eguna urriaren 20an, Murgian

ZUIAKO KUADRILLAN, Murgian, ospatuko du aurten Topaguneak Arabako Mintza Eguna. Euskara ikas- teko mintzapraktika egitasmoetan parte hartzen duten arabarrei, baita aritzen ez direnei ere, gonbi- tea luzatu zaie datorren larunbata jai giroan pasatzeko. Goizean ibilbide gidatua egingo dute Zuiako eta Euskal Herriko mitologia ezagutzeko, eta ondoren, mintza probak izango dira, alegia, berba-pasak, esaera zaharrak eta palindromoak osatu beharko dituzte. Bazkalordura gosez iristeko kantu jira egingo dute. Sabela betetakoan etorriko dira bertso- antzerki-kantu saioak, dantzaldia eta kontzertua. ■



Bahea

Joxe Manuel Odriozolak Berrian esanak:

“Urkulluk euskararen inposizioan sinesten ez baldin badu, *de facto* espainieraren inposizioan sinesten duela ondorioztatu beharko genuke, beraz. Ez baitago beste aukerarik. Markel Olanok ezin baldin badio kazetari erdaldunari euskaraz hitz egin, inposizioa delako, *de facto* espainieraren inposizioa onartzen ari zaigu Urkullu. (...) Nazio konkistatu eta kolonizatueto agintari batek historian atzera begiratu gabe gobernatzen duenean, horrelako jarrerak nagusitzen dira: berezko herri-hizkuntzan bizi nahi izatea inposiziotzat jotzen da eta, aldiz, nazio zapaltzaileen hizkuntza zapaltzailean bizitzea legitimatu egiten da bizikidetzaren eta demokraziaren izenean. Jarrera hori errealismoaren eta zentzu komunaren izenean zuritzen du agintari alienatuak”.

‘Zazpi ebidentzia birjaiotzarako’

HALA DU IZENBURUA Xabier Amuriza bertsolari eta idazlearen azken liburuak. *Euskara batuaren bigarren jaiotza* liburuari segida eman nahi izan dio; gai txiki eta eztabaidatsuak alde batera utzi eta arazo nagusiei heldu nahi izan die. Arazo nagusi horiei ‘ebidentzia’ deitu die, eta egi- leak dioenez, ebidentziaren aurrean bi aukera baino ez daude: onartzea ala ukatzea. Erdi bideko eztabaidek ez omen dute askorik balio. ■



Erdian Xabier Amuriza ‘Zazpi ebidentzia birjaiotzarako’ aurkezten.

EKONOMIAREN TALAIA • TERMOMETROA

Tobin ez da Botín

TOBIN TASA berriz ere egunkarietan. Gobernuak, Tobin tasa edo Finantza Transakzioen Tasa (FTT) ezarriko dutela eta krisia arintzeko erabiliko dutela sinetsarazi nahi digute. Nazioarteko goi-bileretan aspalditik ari dira zerga horretaz hitz egiten, baina beti atzeratzen da ezarpena. Hala ere, kontuan eduki behar da James Tobin, 1971n Bakearen Nobel sariduna eta zergaren sustatzailea, ez dela Emilio Botín, ezta Francisco González ere, Banco Santander eta BBVA-ko presidentek, hurrenez hurren. Tobinek kapital fluxua kargatu nahi zuen, prozesua mantsotzeko, gutxiago espekulatzeko, eta trukerako neurriek hainbesteko fluktuazioarik ez izateko. Orain proposatzen den zergak transakzio gordinak kargatu nahi ditu, edozein konpentsazioaren aurretik, eta finantza transakzioetan jartzen du arreta. Proposatutako zerga- neurriak %0,1 dira akzio eta bonuentzat, eta

%0,01ekoak produktu eratorrientzat. Europar Bata- sunak, aldiz, aukera justuena eta sozialena alboratu du: Finantza Aktibitateen Tasa (FAT). Zerga honek finantza sektorearen balio erantsia kargatzea du hel- buru —etekinak eta soldatak gehitzean lortzen den kopurua, bankuetako zuzendariei eta funtsen kudea- tzaileei ematen zaizkien bonuak barne—.

Beldurra zabaltzen ari da, lasai asko gerta baitaiteke zergaren karga fiskalak bezeroei eragitea, zeharka bada ere, komisioen bidez, esaterako. Zeinek kontro- latzen du hori? Sharo Bowles eragin handiko europar- lamentariak esan du FTTak, bozkaturia izan den gisan, antza gehiago duela Nottinghameko sheriffarekin Robin Hoodekin baino. Gehiago bilduko dela segu- rua da, baina sinetsarazi nahi izatea bankuek eta espe- kulatzaileek kostu hori bere egingo dute- la, engainatzea da. Botín eta González ez dira Tobin. Bistan da. ■

Juan Mari Arregi



Karbono trafikoa Espainian: kutsatzaileen lapurreta berdea

Klimaren aldaketak ez dauka zertan tragedia izan beharrik... baldin eta ez bazara bizi itsasoak harrapatuko dituen lurraldeetan. Telebistako erreportaje apokaliptikoek herritarrok gaituzte izutzen, kutsatzaileak ez. Ikusi nola ateratzen dioten etekina kutsadurak eragindako arazoari haren eragile nagusiek. Tarteak, hemengoek.

| PELLO ZUBIRIA KAMINO |



ELCOMERCIO.ES

Arcelor Mittal da karbonoaren merkatuko etekin zerrendan txapeldun. Irudian, Asturiasko Avilesean duen faktoria.

ULERTZEN ZAILA ERRAZ AZALTZEA izan behar badu kazetariaren dohai-netako bat, *Carbon trade* edo karbono salerosketa ipuin txar batez adierazi beharko genuke.

Bazen behin gizon aberats bat altxorra egin zuena gainerako herritar guztiak izorratuz. Jauntxoak zerabilen sistemaren erruz etxeak bezala kaleak urez gainezka zeuden, hasieran behatza bete, gero orkatilaraino, belauneraino... Herritarrek txit larri zirenez, zerbait egin behar zela deliberatu zuten ordezkari politikoek. Eztabaida luze mamitsuen ondoren, aurkitu zuten soluzioa:

kutsadura sortzen zuena bera diruz pagatuko zuten arazoa bideratu zezan. Jauntxoak uholdearen kalteak pagatzeko partez “arazoa bideratzeagatik” kobratu zuen eta fabrika ibaian goragoko herrira urrundu. Geroztik, herrikoak eta auzokoak denak dira urpean, itolarria handitu da eta jauntxoak “arazoa bideratzeko” sos gehiago eskatzen du.

Sistema era pedagogikoan azaldu zuen Anni Leonardek *–The story of stuff* (Gauzen istorioa) famatuaren egileak *– The story of Cap & Trade* bideo famatuan, NET HURBILEK laburbildua 2009an. Uda honetan

operazioaren emaitzak erakutsi ditu Carbon Trade Watch erakundeak *“Castillos en el aire: El Estado español, los fondos públicos y el mercado de carbono de la Unión Europea”* txostenean.

Gizarte industrialak eragindako klima aldaketa larria izanik, hura geldiarazteko neurriak hartzeko ordezkari berriak aberatsetako agintariek korporazioen lobbyek bultzatuta arautegi konplexuz hornitutako negozio lerro berria osatu dute. Oron buru, klima aldatzen ari diren kutsadurak ugaritu dira izugarri... eta herritarren zergetatik ateratako dirutzak etekin berriak eman dizkie kutsatzaileei.

Poloniarren CO₂ merkea

Rafael Mendez kazetariak *El Pais*-en webgunean ezagutarazi du urriaren 5ean, antza denez Reuters agentziatik hartuta, nahiz eta bihar-munean paperezko egunkariak jaso ez. Espainiako ingurumen ministerioak 40 milioitan erosiko dizkiola Poloniari ia 100 milioi tona CO₂ isurtzeko eskubideak. Albistearen ontsa erakusten du negozioaren funtsa.

Kyotoko protokoloaren jarraipenak laster kontrola pasa behar duenez, Europar Batasunak zer-bait azkar egitea eskatu zion Espainiari. 1990eko isuriak gehienez %15ean handitzeko eskubidea edukiz, askoz kutsadura gehiago ari da ekoizten Espainia. Europa munduaren aurrean lotsagarri ez uzteko, gehiegizko kutsadura

eskubideak erosi beharra dauzka Espainiak.

Mariano Rajoyren Gobernuaren zorionerako, CO₂aren prezioak hondoratu egin dira krisi ekonomikoagatik. Multinazionalen lobbygintzaren eraginez, Europak goitik kalkulatu oparitu zizkien konpainiei kutsatzeko eskubideak. Orduko kontabilitatean, tona bat CO₂ erosi edo saldu zitekeen 20 euroko prezioan. Baina orain ekonomia-aren martxa hoztu denean, tona bat gutxiago isurtzeko zertifikazioa 7,5 eurotan dago. Baina prezio hori ere handiegia izango zen Espainiarentzako, urte hasierako kalkuluetan 500 milioi euroko gas-tua egin beharra baitzeukan CO₂aren kontabilitatea eguneratzeko.

Azkenean Poloniak salduko dizkio likidazio prezioan duela hogeitertetik hona komunismo garaiko industria asko itxi izanaren eskubideak. Berez Kyotoko arauak zorrotz betez eskubide horiek ezin-go lituzkete ordaindu, Espainiak behar dituenak atal diferenteetakoak direlako, baina bakearen izenean —eta korporazioen sakelaren gozagarri— Europako Elkartek ezikusia egingo diete tratua-aren xehetasunei. Horrela, Europak beteko du Kyotoko ituna, Poloniak sos batzuk eskuratu, Espainiak %53 gehiago kutsatuz %15 baino gehiago ez duela kutsadura igo argudiatu, kutsatzaileek segiko dute kutsatuz aberasten... eta Juan Carlos Borbonen subditoen sakeletan 800 milioi euro (gehiago) faltako dira.

1997an Kyotoko protokoloa onartzerakoan korporazio handiek lortu zuten isuri kutsagarrien merkatua, funtsean CO₂ karbonoarena, bi mekanismotan mamitzea. Alde batetik *cap and trade*, hau da, kutsadurantzako gehieneko topea eta trukea. Bestetik konpentsazioak, hemen kutsatzen segi urrutiko beste nonbait isuriak gutxitzearen truke. Horrela sortu zen salerosketarako gai berri bat, karbonoa. Salerosketarako... eta espekulaziorako.

Europar Kyotoko protokoloa 2005ean mamitu zen Isurien Merkataritzarako Europako Elkartearen Arautegia (RCCDE gaztelaraz-

ko sigletan, EU-ETS ingelesezko-etan) delakoan. *Carbon Trade Watch* behatoki independentearentzako Beatriz Martinez eta Tamra Gilbertonek idatzi duten analisisian diote-nez, “egia zera da, Europar Batasunean isuriak handitzen ari direla eta sistemak ez dituela bere balizko helburuak lortu, baina industria kutsatzaileenei eskaini dizkiela negozio handiak egiteko aukerak”.

1990ean Espainiari eman bazitzaion isurtzeko %15 karbono dioxido gehiago, 2007rako %53an handituak zituen. Okerrena da, gainera, horretara iristeko Madrilgo administrazioak 750 milioi euro xahutu

dituela konpentsatzeko mekanismoetan. Herritarrek ordaindu eta enpresek kobratu: Arcelor Mittal batek 263 milioi euroko etekinak atera dizkio operazioari, Cemex porlangileak 210 milioi, Repsolek 105 milioi, Cementos Portland Val-derrivasek 97 milioi, eta abar.

Agintarien bedekapenarekin

EU-ETS karbono merkataritza sistemak 30 herrialde eta 11.000 fabrika biltzen ditu, tartean zentral elektrikoak, petrolio birfindegiak, siderurgiakoak, porlangileak, eta abar. Horiei kalkulatu eta eman zaizkie kutsatzeko hainbat kreditu



Mikeletegi pasealekua 53 • DONOSTIA
943308220 • www.arbelaitz.com

Arbelaitz Jatetxea

Karbonoaren Espainiako Funtza, haize-errotak eta indioak

Fondo Español de Carbono (FEC) delakoa daukate antolaturik Espainiako Estatuaren eta enpresa handien artean. Izaera pribatu eta publikoa dauka, Mundu Bankuak kudeatzen du 278,6 milioi dolareko kapitalean oinarrituta. FECEan parte hartzen duten enpresa eta taldeen artean nagusienak dira: Endesa Generación, Enel-Viesgo Generación, Repsol, Gas Natural, Iberdrola Generación, Oficemen –porlana ekoizten duten konpainien elkarte–, Abengoa, Azuliber, Cementos Portland Valderribas, CEPSA eta Hidroeléctrica del Cantábrico.

Mundu Bankuaren webean Espainiako FECen 20 proiektu daude. Horien artean badira alde batetik HFC gasak erauztekoak, energia hidroelektrikoa sustatzekoak do Txinako zabortegetan gasak erretzekoak bezalakoak, baina baita Indiako Karnataka estatuan haize-errotak sailak eraikitzeko bezalakoak ere. Gisa honetakoa da orain arte ondoen dokumentatuta dagoen eta istiluak eragin dituen beste bat: Mexikoko Oaxacan eraikitako La Venta II parke eolikoak.

2007an inauguratu zuten La

Venta II, energia eolikozko proiektu erraldoi baten osagai dena. Mexikoko hegoaldean Corredor Eólico del Istmo deitu dutenaren barruan aurreikusita daude La Venta saileko lau haize-errotak sail handi. Gamesa konpainiak La Venta I eta IIren artean pilatu ditu 100 generadore baino gehiago, bakoitza 850 Kilo-watteko potentziaren jabe.

Tehuantepec eskualdean, Oaxacan, bertako indigenek eta nekazariak gatazka bortitza asko nozitu dituzte errotak direla eta. Herriarrek salatzen dute inork ez ziela galde-tu gaiaz, eolikoekin egin nahi zutenaz engainatu egin zituztela, eta askok beren lurren jabegoa ere galdu egin dutela. “Enpresak [Iberdrolak] kaltetutako gure lurretako metro karratuko bi peso ordaindu nahi digu, nahiz eta horiek benetan hektareako 150.000 balio izan; ezin-go ditugu lurroak gehiago erabili, horietan bideak ebaki eta sortutako energia bideratzeko hodiak eraiki dituztelako”.

Komunitateko beste herritar batek esan du: “Orduan lurjabearekin harremanetan sartzen ziren eta 30 urterako kontratua sinatzen zuten; konpainiak diru kopuru bat

eskaintzen zuen, baina hasi gine-nean kalkuluak egiten ohartu ginen huskeria zela konparatuta liskarrean dauden lurroak ematen duten etekinarekin. Lurroak hektareako gutxienez 40 litro esne ematen dute eguneko, zortzi behi bazkatzen dituztelako. (...) Aldiz baserriarrei hilabete eta hektareako 260 peso [15 euro inguru] pagatzen zieten, engainu bat, gezur zikin bat nekazari-erantzako”.

2011ko urriaren 28an bertako herritarrek ezagutarazi zuten, liskarrak izan ziren La Venta herri inguruan Carretera Panamericana errepidean, Oaxacako Juchitanen. Bertako komunitateek eten egin zuten kamioko pasabidea beren lurra babesteko eta parke eoliko gehiago instalatzea eragozteko. Polizia azaldu eta indarrez desegin zuen blokeoa, pertsona bat hil eta 20 gehiago zaurituz. Antza denez, inguruko herritarrek heriotza mehatxuak jaso zituzten hori gertatu baino zortzi egun lehenago, Amnesty Internationalek frogatutzat eman dituen mehatxuak.

*Carbon Trade Watch-en *Castillos en el aire...* txostenetik itzulia

edo baimen; hauek saldu nahiz erosi ditzakete elkarren artean edo urrutiko herrialdeetan energia berriztagarrietan egindako inbertsioekin konpentsatu. Laster sartu dira bankuak eta finantza erakundeak isurtzeko baimenon salerosketan.

Europako arauak egokitzeko, Espainiako Gobernuak *Plan Nacional de Asignación* (PNA) abiarazi zuen. Honen koordinatzailea Arturo Gonzalez Aizpiri izan zen, Repsoleko gizona. Energia, siderurgia, porlana, beira eta papera lantzen dituzten konpainia nagusiek hartu zuten parte planaren idazketan, gizarte zibilaren ordezkari bakar batek ez. Haren aktak sekretupean daude gaur artio.

Carbon Trade Watcheko dosierak salatzen duenez, Espainiako planean industrialek lortu zuten kutsa-

tzeko baimenak puztea, krisiaren aurreko beroaldi ekonomikoan egin zutela aprobetxatuz. Espainia hormigoio festan murgildurik zegoen, 5.000 kilometro autopista eraiki dira hamar urtetan, aireportuak, beste inon baino etxe gehiago, era guztietako erakustoki erraldoiak... Burbuila lehertutakoan, industriaren martxa epelduta, barra-barra emandako baimenak salgai dauzkate konpainia handiak.

Karbonoaren merkaturako etekin zerrendan Arcelor Mittal da txapel-dun. Espainian 2008 eta 2011 artean

Industriaren martxa epelduta, barra-barra emandako baimenak salgai dauzkate konpainia handiak

dohaineiko 18 milioi baimen lortu zituen. Europa osoan 97 milioi baimeneko soberakina kalkulatu zaio, merkatuan daukaten prezioetan kalkulatu 1.600 milioi euro balio dutenak. *Lobby*gintza gogorra egiten du Bruselan eta Estrasburgon Arcelor Mittalek, bateko edo besteko usina itxi eta milaka langile kalean uzteko mehatxuekin.

Zerrendako bigarrena eta laugarren daude bi zementu konpainia: Cemex mexikarraren Espainiako adarrari karbono salmentengatik 210 milioi euroko etekinak kalkulatu zaizkio eta Cementos Portland Valderrivas –Olaztin hondakinak erre nahi dituenari– 97 milioi. Bien artean Repsolek 105 milioi euroko etekin bereziak lortu ditu. Operazioa ondo borobiltzeko



Iberrola blogetik hartutako argazkian, Mexikoko Oaxaca hirian iaz egindako manifestazioa Espainiako multinazionalak eraiki dituzten parke eoliko erraldoien kontra. Carbon Trade Watch erakundeak salatu duenez, "Espainiako estatuak dirutza handiak ematen dizkie karbonoaren nazioarteko funtsei, isurketak gutxitzeko ezertan laguntzen ez duen finantza merkatua sustatzen du eta konpentsazio kredituak bildu nahi dituzten enpresa handien hedatzea saritzen, aldi berean Espainiako osasun, hezkuntza eta gizarte ongintzan sekulako mozketak ezarriz, oraingo eta biharko herritarrek ordainduko dituztenak. (...) Subentzionatzen ari da enpresak Hegoaldeko herrien gain egiten ari diren kolonizazioa, are larriagotzen dituen populazioen lekualdatzea, giza eskubideen urraketa eta bertako ingurumenaren eta gizartearen suntsiketa".

hiru osagai izan dira beharrezkoak. Batetik, estrategiaren diseinua energiaren, porlanaren eta oro har jarduera kutsakorrenak dituzten korporazioen esku uztea. Fondo Español de Carbono partzuergoan denak daude, hasi Endesa eta Iberdrolatik, pasa Repsol, Gas Natural, edo Cepsatik eta porlangileak bil-tzen dituen Oficemen elkarteraino.

Bigarrenik, herrialde behartsua-

goetara jo da isuriaren konpentsazioak lotzerakoan. Karbonoaren trafiko hau kontutan eduki beharra dago munduko gatazketako asko ulertzeko. Mexikoko Oaxacan eraiki dituzten parke eoliko erraldoien kontra oldartu dira herritarrek, Txilen urtegi handien kontra, Kolonbian biomasazko zentralak eraiki dizkiete....

Operazioaren hirugarren oina

agintari politikoen konplizitatea da. Jose Maria Aznarrek, Elena Salgado presidenteordeak eta gaur ministroa den Luis de Guindosek lotura dute Endesarekin, Felipe Gonzalezek Gas Naturalekin, Jaiver Solanak Accionarekin... Eta Euskal Herriko politikari kutsatuen izenak? Kazetari gazteentzat lana bada. ■



ZINKUNEGI
OPTIKA

Garantia.

Egunez egun zure konfiantza geureganatzen dugu,
produktu berriak eta zerbitzu berriak etengabe bilatuz.

Hernani, 23 · 20004 Donostia · T. 943 420 624
info@zinkunegioptika.com · www.zinkunegioptika.com



Xabier Letona

◆ ARGIAKO ZUZENDARIA



DANI BLANCO

EAJren eta EH Bilduren erantzukizuna

ETA-K 2011ko urriaren 20an bere jardun armatuaren amaiera iragarri zuenetik, euskal gizartea askoz hobeto dago, bai behintzat bakea eta elkarbizitza eraikitzeari dago-kionez. Krisiak, aldiz, okerrera egin du eta horrek bigarren maila batean utzi du atzo goizera arte gure arazo handiena zena. Ur handiagotan sartu gabe, askoz hobeto gaudela esan genezake, batez ere ETArek mehatxupear ziren milaka pertsona lasai ibili daitezkeelako gaur egun, norbaitek hilko dituen edo eraso egingo dien beldurrik gabe. ETArek jarduera gero eta urriagoa eta bazterrekoagoa zen azken urteetan, baina oraindik ere euskal gizartearen ohiko bizitza baldintzatzen indarrarekin. Bost hamarkadaren ondoren, gizarteak behar zuen bakea eta elkarbizitza eraikitzeo aukeratxo bat eta ETAK duela urtebete jarri zuen bere ale nagusia: borroka armatuaren behin-betiko amaiera.

Baliatu al da denbora hau bake prozesuan aurrera egiteko? Erantzuna garbia bezain latza da: ez. Edo ez behintzat publikoki, gizarteari begira, honen parte hartzearekin... eta hauek guztiak ezinbestekoak dira, bake prozesu eraginkor bati begira. Gogorra bada ere, hori da sentipen orokorra, egoera geldi dagoela. Esparru bakarra ari da garatzen indarrez, ezker abertzalearen parte hartze politikoari dagokiona; ozta-ozta baina hor Espainiak legezko ateak ireki dizkio ezker abertzaleari eta hau ondo baliatzen ari da aukera: Bildu eta Amaiurrekin lehenago, eta orain EH Bildurekin.

Gainerakoan, ez da bake prozesu batek eskatzen duen giro eta oinarririk: ETAK eta ezker aber-

tzaleak egin dituzte lehen pauso garrantzitsuak, baina PP buru, Estatu ez da ia mugitu. Eta mugimendu agerpen txikiren bat egin duenean, argi geratu da barne arazo handiak dituela. Hala ikusi zen Barne Ministerioak bere espetxe politika berriaren asmoak agertu zituenean eta berdin Josu Uribe txabarria presoaren auzian. Aitortu behar da, gainera, borondate handia behar dela agerpen horiei keinu izaera emateko. Krisiaren bultzadaz edo aitzakiaz, instituzio nagusiek ere gaia ahanzturan utzi dute: urtebetean ponentzia parlamentario bat besterik ez da bideratu ia eta honek ez zuen lortu ezker abertzalea bere baitan hartzea.

Baliatu al da denbora hau bake prozesuan aurrera egiteko? Erantzuna garbia bezain latza da: ez. Edo ez behintzat publikoki, gizarteari begira, honen parte hartzearekin... eta hauek guztiak ezinbestekoak dira, bake prozesu eraginkor bati begira

Sinbolikoki, Arnaldo Otegi eta Bateraguneko beste espetxeratuak dira egoeraren adierazle esanguratsuenak: bakea egin behar duen Estatuak duela hiru urte espetxeratu zituen eszenatoki guztian giltzarri izan diren ezker abertzaleko buruzagiak, eta tartean askatzeko aitzakia eta aukerarik falta ez bada ere, kartzelan jarraitzen dute. Egoerak esperpento itxura hartzen du Otegi komunikazio debekuarekin zigortzen dutenean, honek BECe-ko EH Bilduko mitinerako grabaketa bat egin zuelako. Baina hori da arazoetakoa akaso egun, Espai-

niaren egoeran esperpentoa lau haizetara zabaltzen ari dela.

PP-K eta PSOEk harresi bat eraiki dute bake prozesuan aurrera ez egiteko: ETA disolbatu arte ez da mugimendurik egongo. Baina Madrilek urteetan nola jokatu duen ikusita –berdin Gernikako Estatutua, Ibarretxe Plana, ezker abertzalea edo orain bake prozesuarekin– aitzakiaren kiratsa jasan ezina da. Urratsak eman nahi ez direnean beti dago aitzakiaren bat. Su-eten garaietan, behin-betikoa behar zuela; edo gaitzespena behar dela, edo barkamena, edo ETA desegitea... Urtebete denbora gutxi da bake prozesu bat bideratzeko, ados, baina ez dagozkion keinuak egiteko eta gizartea klabe horretan kokatzeko. Eta ez da hori egiten ari.


EAJk eta EH Bilduk badute lanik Eusko Legebiltzar berrian. Uneon, herritarren arazorik larriena krisia bada ere, hori ezin da aitzakia izan bakegintzan pauso erabakigarriak ez emateko. Areago, normalizazio politikoa bideratzeak, indarrak askatuko ditu hain sakona den multikrisi garaia behar legez heltzeko.

Arazorik handiena da ea nola lortu PP ere galdi horretara igotzea, honen praxiak bi norabide arriskutsu erakusten ditu eta: bata da presoen gaia xantaia gisa erabiltzeko tentazioa izan dezakeela; bestea, orain Kataluniakoa ere baduen arren, gatazkaren iraupena kohesio tresna gisa baliatzea Espainian. Euskal herritarren presio da hala-koak saihesteko estra-tegia eraginkorrena, baina horretarako, herritarrak aktibatzea ezinbestekoa da. ■



ASTE HONETAKO

zozketa



Andra Mari Jatetxea

2 lagunentzat afaria

Elexalde Auzoa, 22
Galdakao BIZKAIA

www.andra-mari.com

1



Donostiako Aquiriuma

4 harpidedunentzat
bina sarrera

Carlos Blasco de Imaz plaza, 1
Donostia GIPUZKOA

www.aquariumss.com

2



Artium Arte Garaikideko Euskal Zentro-Museoa

4 harpidedunentzat
bina sarrera

Frantzia, 24
Gasteiz ARABA

www.artium.org

3



Bilboko Euskal Museoa

4 harpidedunentzat
bina sarrera

Miguel de Unamuno plaza, 4
Bilbo BIZKAIA

www.euskal-museoa.org

4



Illimani

2 liburu opari

www.argia.com/denda

5

AZKEN IRABAZLEAK (2339. Argia)

A FUEGO NEGRO JATETXEA

- Maritxu Aiertza Lertxundi (Astigarraga)

BILBOKO EUSKAL MUSEOA

- Carlos Ansola Peñalba (Elgoibar)
- Andone Barandiaran Arratibail (Pasaia)
- Portugaleteko Aek Euskaltegia (Portugalete)
- Belen Altuna (Zarautz)

KIROLAZ BADAKIT

- Lurdes Uzkudun Etxenagusia (Errezil)
- Bergarako Udal Euskaltegia (Bergara)

SAN TELMO MUSEOA

- Juanjo Usabiaga Urkola (Ordizia)
- Manoli Zaldua Muruaga (Hernani)
- Iñaki Azkune Mendia (Donostia)
- Aitor Zuberogoitia Espilla (Durango)
- Edurne Zuazabeitia Olabe (Gasteiz)

EKAINBERRI

- Ana Lobeiras Carlos Garaikoetxea (Berroeta)
- Jose Manuel Larrañaga Garmendia (Zumaia)
- Edorta Miranda Salbidegoitia (Leioa)
- Mikel Lizarreta Jaka (Gartzain)

* Bisitaldietarako epea: Bi hilabete

gunea


argia

PARTE HARTZEKO

Asteleheneretik ostiralerara 08:00-15:30

Tel: 943 36 72 85 • gunea@argia.com

www.argia.com/gunea





euskarabildua

AUKERA BERRIAK SAREAN

noiz

urriak 19 ostirala

non

Koldo Mitxelena
(Donostia)

ordua

09:00-14:00

*Oharra:

Plaza kopurua kontrolatu ahal
izateko, gomendagarria da
izena ematea

EGITARAUA

09:00 Aurkezpena

09:15 Bideo laburra
Esperientzia arrakastatsuak euskaraz: Tropela

09:30 Ponentzia. **Davyth Hicks**
Teknologia berriak eta hizkuntza gutxituak: erabilera eta ikusgarritasuna
handitzen. Etorkizuna eta garapena Europan.
*Itzulpen automatikoko zerbitzua egongo da

10:15 Bideo laburra
Esperientzia arrakastatsuak euskaraz: Osasunlingua

10:30 Ponentzia. **Albert Cuesta**
Sare sozial globalak: itzulpenaz harago

11:15 Atsedenaldia

11:45 Ponentzia. **Egoitz Goikoetxea**
SEOaren garrantzia irakurle eta erosle euskaldunen nahiak
internet bidez asetzeko

12:30 Bideo laburra
Esperientzia arrakastatsuak euskaraz: Arbel digitala

12:45 Ponentzia. **Lander Arbelaiz** (ARGIA)

Euskara eta
teknologia berriei
buruzko jardunaldia

Antolatzaileak

ametzagaña
OO taldea

argia

iametza
interaktiboa

info+:

www.euskarabildua.com

Babesleak



Gipuzkoa
BERRIA

kutxa gizarte ekintza

Laguntzaileak

aniza
komunikazio grafikoa

Deusto
Realidad de Ciencias Sociales y Humanas
Gobierno de Gipuzkoa

